

Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2003ko maiatzaren 30a / 542. zenbakia

LANGINTZA ZAHARRAK

IÑAKI ARANAREN

'BURDINA: ERREMENTARIAK ETA PERRATZAILEAK'

LIBURUA AURKEZTUKO DUTE EGUENEAN



HAUTESKUNDEAK: GALLASTEGIK ALKATETZARI EUTSI DIO/5 • PILOTA: BERGARA HIRIKO TXAPELDUNAK/10

AZALA: IÑAKI ITURBE / JATORRIZKO ARGAZKIA: MIGEL ALBENZ



ANTIA
HARATEGIA
Matxiategi 8
BERGARA



BOLU
FRUTATEGIA
Aranerrika 3
BERGARA



GERMAN LETE
ARRAINDEGIA
Oxirondo azoka
BERGARA



IMAZ
HARATEGIA
Aranerrika 1
BERGARA



LETURIA
JON MIRENA
HARATEGIA
San Pedro 24
BERGARA




MERTXE
OILASKOAK
Oxirondo azoka
BERGARA

OSAGAI **ONENAK** GURE KONTU



MUJIKA
HARATEGIA
Kalebarren 1
ANTZUOLA

Prestatu, zuk prestatuko
duzu ondoen,
baina osagai onenak
gurean eskuratu
ahal izango dituzu:
zure herriko dendetan.



PRIMI
ARRAINDEGIA
A. Fleming 5
BERGARA



SAN PEDRO
FRUTATEGIA
San Pedro z/g
BERGARA



URCELAY
HARATEGIA
Ibargarai 16
BERGARA



ZARAITZU
ARTISAUA
Fraiskozuri 3
BERGARA

ATREBENTZIAZPADA/ Hondartzatan lasai hartuko ziñuke bainua, Prestige-koaren ondoren?



BLANCA DAUBAGNA
40 urte



JUANTXO ALLENDE
36 urte



AITZIBER MUGURUZA
20 urte



AINTZANE OLABARRIA
18 urte



IBAN DIAZ DE GEREÑU
28 urte



IÑIGO ZABALA
32 urte

Oso gutxitan joaten naiz hondartzara eta pasau dana ikusita, aurten oraindik gutxiagotan jungo naiz. Ez naiz asko fidatzen eta ez dot uste bainua trankil hartuko neukenik.

Bittan egon naiz aurten, Deban eta Ondarroan, baina eguraldi txarra egiten zuenez, ez nuen bainua hartzerik izan. Baina ez daukat horretarako inolako beldurrik.

Uste dot jungo naizela, baina neurri batzuk hartu beharko diela pentsatzen dot. Badaezpada. Petrolio mantxak ez badare, bainua arazo barik hartzeko aukera izango da.

Nik kanpora juteko asmua daukat. Hala ere, hemen inguruko hondartzetan uste dot bainua hartuko neukela. Arriskua balego ez zituzten hondartzak bainurako zabalduko, ala?

Ez dakit bainua hartzeko moduan izango diren, baina hondartzan *chapapoterik* ez dagoen bitartean... Ikusi beharko da inguruko hondartzak zenbateraino kutsatuta daren.

Bainua hartu aurretik hobe izango da ziurtatzea inolako kutsadurarik ez dagoela. Hori ikusi egiten da eta pentsatzen dot beharrezko analisiak egingo dituztela arriskua prebenitzeko.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK IRIZARKO ESERLEKUAK Orain dela bi hilabete eskas jarri zituzten Irizarko lorategian eserleku berriak, eta dagoeneko koloreetako errotuladoren margotu ditu norbaitek. Eserlekuak esertzeko dira, eta ez margotzeko; horretarako badaude euskarri aproposagoak. Gauzak zenbat eta hobeto zaindu, orduan eta gehiago irauten dute. Eserlekuak guztien ondasun dira. /M.B.

ETABARRUAN...

ASTEKO BERRIAK /7

KIROLA /10

KULTURA /12

Burdinaren gainera liburua

Bergara Hiriko txapeldunak

Haurren Euskal Jaia domekan

Iñaki Arana bergararrak
Burnia: erremontariak eta perratzaileak liburua egin du.

Retegi-Urrizelki eta Eguzkitza-Erauskin bikoteak nagusitu ziren Bergara Hiriko finaleran.

Etzi 30. Haurren Euskal Jaia izango da, eta 350en bat ume dantzari izango da herrian.

ASTEKO DATUA

30

URTE HAURREN EUSKAL JAIA OSPATZEN

Aurten 30 urte beteko dira herrian Haurren Euskal Jaia ospatzen dela. Domekan izango da, eta 450 ume inguruk egingo dute dantza egun osoan herriko kaleetan barrena.

BESTE EKESANA

“Hautesleei egokitzen bazaigu hauteskunde bezperan hausnarke-ta egitea, hauteskundeen ondoren, zenbaketa-aren ondoren, politikoei gauza bera egitea dagokie. Ez naiz luzatuko emaitzen gaineko irakurketarik egiten. Datuak, izoztutako arraina bezala, hor daude, guztien begi bistara, eta bakoitzari dagokio haiekin poztea edota bere burua jipoitzea. Norberak ikus dezala. Gaur egingo dudana da beste bat izango banintz zer egingo nukeen pentsatu... Eta Patxi Zabaleta izango banintz –pozik 50.000 laguntza horiek jasotzeagatik–, batuketak eta kenketak egingo nituzke, ikusteko botoak ez zaizkiola ezker abertzaletik heldu. Ibarretxeren 600.000 botoetatik, baizik. Botoa gora botoa behera.

MARTIN GARITANO / *Kazetaria*
‘Gara’/03-05-27

BERAIEK DINOE/ Mikel Elkoroberezibar



Gari, Mila, Mikel (eta Maite)

Udal hauteskundeak ezohikoak izan dira hego Euskal Herrian. Izan ere, duela lau urte zinegotzi gehien atera zituen alderdia Madrilgo gobernu faxistak hauteskundee-tatik kanpo laga du. Horren ostean askok uste zuten ezker abertzalea ez zela gai izango horri buelta emateko eta bere gotorlekura itzuliko zela. Alderantziz herriz herri, auzoz auzo eta etxez etxe ezker abertzaleak erakutsi du baduela gaitasuna gauzak eraikitze-ko. Laguntza barik, erasoak etengabeak izan dira: ETBko zentsura, ertzaintza mitinak errebentatzen, alkategaien atxilotetak, boto papeletak inprimatu eta eskuz esku banatu beharra, kabinetan papeletarik ez edukitzea, boto "arduratsua" eskatzen zutenen kanpaina... Batzuentzat lortutako emaitzak frakaso hutsa izango dira, besteentzat izugarrizko arrakasta, baina inork ezin duena ukatu da hego EHan oraindik laugarren indar politikoa ezker

abertzalea dela eta Bergaran, berriz, bigarrena. Ibarretxek askotan esan du hautestontziak izan daitezela ezker abertzalea ilegalizatu dezatenak eta maiatzak 25ean gertatukoak erakusten du hego EHan ezker abertzalea ez dela ilegala.

Etorkizunean domekako emaitzek aditzera ematen dute badagoela desobedientzia zibila praktikan jartzeko nahikoa indar, halere ez da nahikoa batzuk oraindik Madrildik datorrenari begira jarraitzen duten bitartean. Gizarte honek beste behin erakutsi du bere heldutasuna eta boto baliogabe horiek etorkizunari begira sekulako balioa dute, erakutsi dutelako praktikan, posible dela Espainiako sistemari modu baketsu eta zibilean aurre egitea. Orain guztioi dagokigu eta batez ere ardua instituzionala dutenei Jesus Mari Garitano, Mila Elortza, Mikel Eguren (eta Maite Guridi) Udaleko zinegotzi izatea. Niretzat eta beste 1.832-1.884 bergararentzat behintzat badira.

“Gizarteak erakutsi du heldutasuna, eta boto baliogabeek etorkizunera begira sekulako balioa dute”

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil
ERREDAKZIOA
Monika Belastegi,
Aintzane Irizar
MAKETAZIOA
Iñaki Iturbe

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga
KOLABORATZAILEAK
Luis Mari Agirre
Maitane Arizabaleta
Juan Martin Elexpuru
Miguel Angel
Elkoroberezibar

LEGE-GORDAILUA
55-50/91
ISSN
1130-6599
TIRADA
5.900 ale



BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako Kultura saila



Gipuzkoako Foru Aldundia



Begarako Udala



Antzuolako Udala



Elgetako Udala

GUARDIAKO FARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 30**
MOZOS. San Pedro 4, 943 76 12 15
- ZAPATUA, 31**
CAMACHO. Oxirondo 4, 943 76 11 74
- DOMEKA, 1**
CAMACHO. Oxirondo 4, 943 76 11 74
- ASTELEHENA, 2**
PUY. Barrenkalea 25, 943 76 16 87
- MARTITZENA, 3**
GUALLAR. San Antonio 5, 943 76 11 05
- EGUAZTENA, 4**
ESTELLA. Matxiategi 5, 943 76 19 63
- EGUENA, 5**
MOZOS. San Pedro 4, 943 76 12 15

TELEFONO JAKINGARRIAK

- OSASUNA / LARRIALDIK**
Anbulatorioa (txanda) 943 76 24 40
Bergarako Udaltzaingoa 943 77 91 06
Aritzuolako Udaltzaingoa 943 76 62 46
Ertzaintza 943 76 53 40
Osasun etxea 943 76 24 40
Asepeyo 943 76 16 43
Pakea 943 76 13 49
Angiozarko medikua 943 78 90 27
Antzuolako medikua 943 76 62 23
Odol emaleak 943 76 16 24
Alkoholiko Anonimoak 943 76 51 06
- GARRAIOAK**
Taxiak 943 76 19 50
- UDALA**
Bergarako Udaletxea 943 77 91 00
Antzuolako Udaletxea 943 76 62 46
Udal Artxiboa 943 77 91 32
Igerilekuak 943 76 20 51
Kultura etxea 943 77 91 58
Liburutegia 943 77 91 62
Kiroldegia 943 76 56 41
Mizpirualde egoitza 943 76 13 68

- BESTELAKOAK**
Epaitegia 943 76 14 92
Erregistroa 943 76 13 15
Jardun 943 76 36 61
Idolaz 943 76 65 08
Erretiratuen etxea. Bergara 943 76 21 40
Antzuolako erretiratuen elk. 943 76 62 71
Postetxea 943 76 26 85
Bedelkar 943 76 04 68
Akulu AEK 943 76 05 18
Udal Euskaltegia 943 76 44 53
Bergarako notariotza 943 76 10 73

MEZAK

- | | |
|---|--|
| San Pedro
Domekak: 09:30, 12:30.
Zapatuak eta lanegunak: 19:00. | Labegarieta
Domekak: 11:00.
San Lorenzo
Zapatuak: 20:00.
Angiozar
Domekak: 11:30. |
| Sierbak
Lanegunak: 19:15.
Zapatuak: 19:00.
Domekak: 11:30, 13:00. | Moja Zaharrak
Lanegunak: 09:00.
Zapatuak: 11:00.
Mizpirualde
Lanegunak: 11:45.
Zapatuak: 17:30. |
| Osintxu
Domekak: 12:30.
Zapatuak: 19:00. | Antzuola
Domekak: 09:00, 11:30.
Zapatuak eta lanegunak: 19:30. |
| Elosu
Domekak: 10:30. | Uzarraga
Domekak: 10:00. |
| Ubera
Domekak: 10:30. | Elgeta
Lanegunak: 09:00.
Zapatuak: 19:30. |
| San Juan
Domekak: 11:00. | Elorregi
Domekak: 10:30. |

URTE-MEZAK

- Santa Marina (Sierbetan)**
Hileko bigarren astean, domekan, 11:30ean.
- San Pedro**
Hileko hirugarren astean, domekan, 12:30ean.

OHARRAK

HITZALDIA ASTELEHENEAN ERRETIRATUEN EGOITZAN
Etxeko istripuen prebentzioaren gaineko hitzaldia egongo da astelehenean, ekainaren 2an, erretiratuen egoitzan, 17:00etan.

SAN JOXEPEKOEN MENDI IRTEERA HILAREN 4AN
Legazpiko, Irungo eta Oreretako erretiratuekin batera, San Joxepe elkarte-koek Gorrara mendi irteera egingo dute eguaztenean, ekainaren 4an. Gero Alzasun bazkalduko dute. Argibideak: 943 76 30 09.

IKASTAROAK KZGUNEAN
KZGuneak herritar guztien-dako Informatika ikastaroak eskaintzen ditu. Besteak beste, Interneten nabigatzeko eta prestakuntzako ikastaroak antolatuta dituzte. Era berean, errelebuka lan egiten dutenei zuzendutako ikastaroa egongo da ekainaren 2tik 17ra. Argibide zabalagoak Irizar jauregiko (Barrenkalea, 33) lehen solairuan edo 943 76 73 24 telefono zenbakian.

ODOL ATERATZEAK
Bergarako odol emaleek jakinarazi dutenez, ekainean odol ateratze bakarria egingo da: ekainaren 25ean, hain zuzen ere. Uztailean, berriz, bi egingo dira: hilaren 9an eta 23an.

JARDUNEN AGENDA

ASTE BUKAERAKO JARDUERAK
Bihar, zapatua, Olinpiadak egongo dira Seminarioan, 16:00etan hasita, eta Txiskrilabi taldekoendako jolasak egongo dira Udal Euskaltegian, 16:00etatik 20:00etara. Arrizuri, berriz, domeketan egongo da zabalik aurrerantzean Txapligu taldekoendako, 16:00etatik 20:00etara.

URBANOEN ORDUTEGIA

San Lorenzo / San Juandik irteerak
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.
GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorenzo (Sorraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurra-dero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegarieta / Olabarrenetik irteerak
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.
GERALEKUAK: Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Muger-tza, San Lorenzo, Amillaga eta San Juan.

ORAINDELA 10 URTE BERRIGARAN

Erretiratuen egoitzako berritze lanen inaugurazioa

Erretiratuen egoitzako berritze lanak eta bolatoki berria inauguratu zituzten 93ko maiatzaren 28an. 35 milioi pezeta inbertitu zituzten berritze lanetan. Inaugurazio ekitaldian, besteak beste, Gema Zabaleta Gizarte Zerbitzuetako diputatua eta Victoria-no Gallastegi alkatea egon ziren.



BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elempuru

"Zartiau"

Zartatu, pitzatu, arrailatu.
— *Mutikotan, neguan, esku-gaiñ guztiak zartiauta eukitzen giñuzen.*
— *Etxe zar aretako paretak danak zartiauta dare.*
— *Pinturia zartiauta dauka ire kotxiak.*



GORKA ORTEGA

ASTEKO FILMAK

'SUCEDIÓ EN MANHATTAN'

ZUZENDARIA: WAYNE WANG. AKTOERAK: JENNIFER LÓPEZ, RALPH FIENNES.

HARIA. Marisa Ventura ama ezkongabea da, eta luxuzko hotel baten egiten du lan. Kasualitatez, etorkizun handia duen politikari bat ezagutuko du...

TOKIA ETA ORDUA. Egubakoitzean, 22:30ean; zapatuan, 22:30ean; domekan, 19:30ean eta 22:15ean; eta astelehenean, 19:30ean (ikuslearen eguna).

PUNTUAZIOA: ●●●●●

'EL LIBRO DE LA SELVA 2'

ZUZENDARIA: STEVE TRENBIRTH.

HARIA. Umeei eta nagusiei zuzendutako marrazki bizidunetako filma. Rudyard Kipling Nobel sariak 1894an idatzitako eleberrian oinarritutako istorioan, *Mowgli* eta oihaneko animalien arteko erlazio berezia kontatzen zaigu.

TOKIA ETA ORDUA. Zapatuan, 17:00etan eta 19:30ean; domekan, 17:00etan.

PUNTUAZIOA: ●●●●●

HAUGIROA!

MINIMOA
Eguaztena, 21 **5 °C**

MAXIMOA
Egubakoitza, 23 **32 °C**

ASTEKO EURIA (l/m²) **27,7 L**

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 21	24 °C	5 °C	— l/m²
Eguena, 22	31 °C	6 °C	— l/m²
Egubakoitza, 23	32 °C	7 °C	1,6 l/m²
Zapatua, 24	18 °C	12 °C	9,9 l/m²
Domeka, 25	15 °C	10 °C	16,2 l/m²
Astelehena, 26	16 °C	10 °C	— l/m²
Martitzena, 27	20 °C	9 °C	— l/m²

San Juan auzoan jasotako datuak



Aldoka Maldoka

TABERNA

Kruz Gallastegi BERGARA

OGIZUN
koop. elk.
okindegia



lbargarai 44-46
BERGARA
943 76 45 53

Zubillaga 10
OÑATI
943 78 24 13

HAUTESKUNDEAK/ EAJ-EAk hamar zinegotzi eskuratu ditu, Aralarrek lau eta PSE-EEK, PPK eta EBk bana

Gallastegik alkatetzan segituko du eta Aralar eta EB Udalean sartu dira

MONIKA BELASTEGI

Victoriano Gallastegik alkatez segituko du, laugarren-
goz, domekako hauteskunde-
ondoren. Horrez gain, Arala-
rrek estreinakoz aurkeztu eta
lau zinegotzi eskuratu ditu.
Bestalde, beste alderdi bat ere
sartu da Udalean: Ezker Batua,
hain justu ere.

EAJ-EA koalizioak hamar zine-
gotzi, Aralarrek lau eta Ezker
Batuak, PPK eta PSE-EEK zine-
gotzi bana. Horixe da domeka-
ko udal hauteskundeek eman-
dako emaitza. Udalbatza berri
hori, baina, ekainaren 14an osa-
tuko da, hasiera batean, behin-
tzat, izan ere, beste 20 eguneta-
ko epea dago, hauteskundeeta-
ko emaitzei inpuzazioa
aurkeztuko balitzaie. Bien bitar-
tean lehengo Udalbatzak jarrai-
tuko du Udalean.

Domekako emaitzei dagokie-
nez, EAJ-EA koalizioa izan da boz-
katuena. 3.915 boto jaso zituen,
1999an baino 72 gehiago. Arala-
rrek 1.452 boto eskuratu zituen;
PSE-EEK, 723, duela lau urte bai-
no 12 gehiago; PPK, berriz, 503,
1999an baino 11 gehiago eta Ezker
Batuak, 460, lehen baino 179
gehiago.

Udalbatzaren egituraketa
berrian eragin nabarmena izan
du Bergara Aurrera plataformak
ezin aurkeztu izanak. Bergara
Aurrera herri plataformaren alde
1.828 lagunek egin dute, eta boto
baliagarri izan balira 3 zinegotzi
lortuko zituzketen. EHk, 1999an,
3.437 boto eskuratu zituen.

Partehartzeari dagokionez,
botoa emateko aukera zuten 12.797
lagunetatik, 9.031 boto jaso dira,
abstentzioa, beraz, %28,49koa izan
da; 99an, %31koa izan zen.



EAJ-EA
**VICTORIANO
GALLASTEGI**



EAJ-EA
**Jose Antonio
Etxeberria**



EAJ-EA
**German
Muruamendiaraz**



EAJ-EA
**Juan Jose
Arrieta**



EAJ-EA
**Juan
Garitano**



EAJ-EA
**Arantzazu
Amasorrain**



EAJ-EA
**Valentin
Egidazu**



EAJ-EA
**Luis
Abajo**




EAJ-EA
**Iñaki
Zabala**



EAJ-EA
**Igor
Oiarbide**




ARALAR
**Ainhoa
Larrañaga**



ARALAR
**Juan Martin
Elexpuru**



ARALAR
**Martin
Etxeberria**



ARALAR
**Mikel
Etxaniz**



PSE-EE
**Francisco
Javier Garai**



PP
**Angel
Santano**



EB-IU
**Andres
Díez**

EAJ-EA 10
ARALAR 4
PSE-EE 1
IU-EB 1
PP 1
GUZTIRA 17

ZINEGOTZI KOPURUA, BALIOGABEAK ONARTU BALIRA

	2003	1999
EAJ-EA	8	8
B.AURRERA	3	7
ARALAR	3	—
PSE-EE	1	1
PP	1	1
EB-IU	1	0

BOTOEN BANAKETA

	Udala	Batzar Nagusiak
EAJ-EA	3.915	4.227
B. AURRERA/AuB*	1.833	1.768
ARALAR	1.452	1.061
PSE-EE	723	752
PP	503	551
EB-IU	460	513

*Ofizialki, boto baliogabeak

ZONAKA

	Hautesle errolda	Parte- hartzea	Abst.	Zuriak	Balioga- beak	S		ARALAR		PP		IU			
						1999	2003	1999	2003	1999	2003	1999	2003		
Seminarioa	6.083	4.493	%26,6	58	939	1.940	1.938	1.549	806	280	306	233	240	114	206
Matxiategi	3.088	2.174	%29,85	19	439	947	930	836	295	234	231	143	156	46	104
Martoko	2.082	1.387	%33,4	12	251	523	567	548	205	161	154	98	87	77	111
Ibarra	892	638	%28,5	2	164	287	304	332	102	25	24	13	15	16	27
Osintxu	494	339	%31,4	3	91	146	176	172	44	11	8	5	5	9	12
GUZTIRA	12.629	9.031	%28,49	94	1.884	3.843	3.915	3.437	1.452	711	723	492	503	262	460

ATXILOKETA BAT ETA MOBILIZAZIOAK EGUNEAN BARRENA

Eguna nahiko normal joan zen
arren, gertakaririk ere izan zen
eguerdian. 12:00ak aldera, Jose
Mari Etxaniz atxilotu zuen

Ertzaintzak, Bergara Aurrera pla-
taformaren kartelak jartzen zihar-
duela. Esposatuta komisariara
eraman zuten eta 14:00 aldera utzi
zuten aske. Delitu elektorala eta
autoritateari erresistentzia lepo-

ratu diote. Atxiloketaren unean
harekin ziren beste bi lagun ere
identifikatu zituzten.

Horrez gain, bi mobilizazio ere
izan ziren. Batetik, plataformaren
aldeko hainbat kidek elkarreta-

ratzea egin zuten San Martin pla-
zan, Faxismoa garaituz, Bergara
Aurrera lemapean. Arratsalde-
an, berriz, hainbat lagunek putxe-
razo isila egin zuten San Martin
plazan.

Osintxuarrak haserre Soraluze lantegiarekin

MONIKA BELASTEGI

Osintxuko herri batzarrak dei-
tuta, hainbat lagunek elkarreta-
ratzea egin zuten martitzen eguer-
dian, ordu eta laurdenez, Soraluze
lantegiko irteera oztopatuz. Lan-
tegiari zubi berria eraiki dezala
eskatzeko egin zuten elkarreta-
ratzea. Luis Mari Alberdi batzor-
deko kideetako batek azaldu zue-
nez, Soraluze enpresako kamioi
oso handiek "auzoko zubi zaha-
rra darabilte eta gero eta egoera
kaskarragoan dago; azken hila-
betean beste zati bat apurtu dio-
te". Lantegiak Udalarekin sina-
tutako hitzarmena bete dezala

nahi dute, hau da, "zubi berria
eraiki dezala", eta, horren ondo-
ren, zubi zaharra guztiz konpon-
tzea. Gainera, hitzarmen horren
arabera, "lanek hasita egon
beharko lukete. Gerentearekin
ere egin dugu berba, eta kontua
aurrera doala esan digu, baina
guk ez dugu inongo mugimen-
durik ikusten".

Rafa Barrenetxea Soraluze-
ko gerenteak esan duenez gauzak
aurrera doaz: "Zubia eraikitzeak
bere prozesua darama. Proiektu
teknikoa eginda dago, baina biz-
pahiru alternatiba daude eta
LKSek egokiena zein den aztertzen
dihardu".



Enpresako autoen irteera oztopatu zuten auzotarrek, ordu eta laurdenez, protesta gisa.

MONIKA BELASTEGI

HEZKUNTZA/ Metodologia hori bost urratsetan oinarritzen da eta antolaketa, ordena eta garbitasuna ditu oinarrian


Miguel Altuna Institutuak 'Bost eseak' metodologia japoniarra ezarri du

MONIKA BELASTEGI

Miguel Altuna institutuak *Bost eseak* deritzon programa japoniarra garatu eta ezarri du. Antolaketa, ordena eta garbitasun sakonago eta hobea lortzea du helburu programak. Talde-lanean oinarritzen da, eta langileek eta ikasleek lankidetzan garatu dute.

Japoniatik datorren metodologia da, eta bost urrats ditu: Antolaketa (*Seiri*), Ordena (*Seiton*), Garbitasuna (*Seiso*), Ikus kontrola (*Seiketsu*) eta Diziplina eta ohitura (*Shitsuke*). Izena *-Bost eseak-*, berriz, urrats horietako bakoitzak japonieraz duen izenaren lehen hizkia aukeratuz osatu dute.

Bost urratsek multzo bat osatzen dute, eta bata bestearen ondoren lantzen dira. Hainbat herrialdetara zabaldu den kalitatezko metodologia da, eta horretan jardun duten enpresek oso balorazio positiboa egin dute *Bost eseen* gainean. Miguel Altuna Institutuan Begoña Arraiz idazkariak koordinatu du aipatutako metodologia eta haren esanetan hobekuntzak handiak eta asko dira: "Alde batetik, lan baldintzak, segurtasuna, laneko giroa, pertsonalaren motibazioa eta eraginkortasuna hobetu egin dira; eta, bestetik, ezagutza eta elkarrekiko esparrua lortu ditugu, baita gure barneko eta kanpoko bezeroen poztasuna ere".



Bost eseen eragina leku guztietan nabari da. Tailerrean ere tresna bakoitzak bere tokia du eta guztia ondo seinalatuta dago.

MONIKA BELASTEGI

1999-00 ikasturtean ekin zion metodologia horri eta dagoeneko guztiz garatu du

Ikastetxeko langileek eta ikasleek lankidetzan eraman dute aurrera

Besteak beste, lan baldintzak, segurtasuna eta eraginkortasuna hobetu dituzte

HOBETZEKO AHALEGINEAN

1999-00 ikasturtean ekin zion Miguel Altunak *Bost eseen* programari, eta oro har, eskolaren maila hobetzeko aurrez emanak zizuten urratsei beste bat gehitzeko asmoz abiatu zirela esan du Arraizek: "1995ean Kalitatearen ibilbidea hasi genuen eta bi zeregin nagusitan hasi ginen: ISO 9002 kalitate ziurtagiria lortzeko bidean eta EFQM Bikaintasun ereduari lotutako prozesuen bidezko kudeaketa sistema ezartzen. Aurrekari horiekin, beste urrats bat eman nahi izan genuen eta *Bost esetan* murgildu ginen".

Hori 1999-2000 ikasturtean izan zen. Begoña Arraizek esan duenez, lan handia izan da bost urratsok ezartzea: "Lehenik idazkaritzan ekin genion, eta handik ikastetxe osora zabaldu genuen. Ikastetxe osoan dauden arlo bakoitzeko gauza guztiak ondo sailkatu, ordenatu, garbitu, sobran zegoena bota... behar izan dugu; eta guztia talde-lanean. Langileok eta ikasleek lankidetzan jardun dugu. Izan ere, guztion parte-hartzea oinarritzeko da".

2002-03 ikasturterako ikastetxeko esparru guztietara zuten hedatuta metodologia, eta gaur egun azkeneko *esean* dihardute: diziplina eta ohituraren egindako lan guztia ondo mantentzeko, azken baten. Bestalde, metodologiaren eskuliburu propioa egin dute, eta *Bost eseen* Ebaluatzaile Taldeko kide dira.



ELAko, LABeko eta ESK-ko delegatuek itxialdia egin dute Mayc-en

Maiatzaren 22tik 23ra arteko gaua Mayc-en eman zuten ELA, LAB eta ESK sindikatuak ordezkariek, Altzairuaren Hitzarmena dela-eta patronalak hartutako jarrerarengatik. Sindikatuek zera diote: "Ez ditugu inondik inora ADEGI egindako kritikak onartuko; izan ere, gaizkiletzat jo gaituzte, negoziazioa bultzatzeagatik eta baldintza ekonomiko eta sozial hobekuntzengatik".

LABUR

Jardunek Mendekoste jaietarako atera dituen kamisetak salgai jarri dituzte

Guztira 210 kamiseta jarriko dituzte salgai, eta hiru neurri daude: umeendako, gazteendako eta nagusiendako. Prezioari dagokionez, umeendako kamisetek 10 euro balio dute eta gazteendako eta nagusiendako kamisetek, berriz, 15 euro. Kamisetok Jardun elkartearen bulegoan eros daitezke jaien aurretik edo domekan, San Martin plazan, 12:00etatik 13:30era eta 18:00etatik 20:00etara.

Zabalik dago Udako Euskal Unibertsitatean matrikula egiteko epea

Zabalik dago UEUK antolatzen dituen udako ikastaroetan matrikula egiteko epea. Aurten 28 ikastaro antolatu dituzte: 12 Biarritzen izango dira, hamabost Iruñean eta bat Ondarroan. Besteak beste, www.ueu.org helbidean egin daiteke matrikula. Bergarako Udalak matrikula ordaintzeko laguntzak eskaintzen ditu.

Udalak eta Uberako auzotarrek hitzarmena sinatuko dute auzoa biziberritzeko

Aurreko egubakoitzean onartu zuen udalbatzak hitzarmena. Hitzarmenaren helburua da Uberan etxebizitzak eraikitzea eta auzoa biziberritzea. Hori egiteko auzotarren San Paulo Taldea elkareratu dute, eta eurak arduratuko dira eraikuntza berrien egiteko moaz, besteak beste. Udalak arau subsidiarioen berrazterketan Uberako hiri-lurrak zehazteko konpromisoa hartu du.

ELKARRIZKETA

IÑAKI ARANA / 'BURDINA: ERREMENTARIAK ETA PERRATZAILEAK' LIBURUAREN EGILEA

"Industria garapenak errementarien eta ferratzaileen gainbehera ekarri zuen"

EDU MENDIBIL

Iñaki Aranak idatzitako *Burdina: errementariak eta perratzaileak* liburua aurkeztuko dute eguenean, ekainaren 5ean, udaletxeko areto nagusian, 19:00etan. Garai baten hain ezagunak ziren bi ofizio horiek aztertu ditu Iñakik.

Zelan sortu zitzaizun gai horren gainean liburua idazteko aukera?

UNEDeko Euskal Kultura Departamentu ohiak 1993an landutako proiektuaren azken fruitua da liburua. *Bergara aldeko berbak eta langintza zaharrak* izenburupean lau liburu argitaratu dira azken sei urteotan: Jaione Isazelaiaren *Linua, ehuna eta artilea*; Amaia Olañetaren eta Argiñe Urkiolaren *Txondorrrak, karobiak eta elurzuloak*; Anaje Narbaizaren *Zura: arotzak eta etxegileak*; eta errementarien eta ferratzaileen gaineko hau.

Zer jaso duzu liburuan?

Berrogei bat urte atzera gure herrietan hain ezagunak ziren errementari eta ferratzaile ofizioen ezaugarriak eta Bergara aldean lanbide horietan erabiltzen zuten lexikoa.

Zein ezberdintasun dago bi lanbide horien artean?

Errementariak era guztietako burdinazko erremintak egiten zituzten, eta, batez ere, nekazaritzako lanabesak, aizkorak, aitzurrak, laiak luzatu, are-ortzak luzatu, gurdi-erruberei uhala jarri... Ferratzaileek, berriz, gure baserrietan hainbeste ganadu eta zamari zegoen garai hartan lan ugari zuten ferrak jartzen eta kaskoetan sortzen zitzaien gaitzak sendatzen.

Eta zeintzuk izan ziren ofizio haiek desagertzeko arrazoi nagusiak?

Industria garapenaren ondorioz ofizio bi horiek gainbehera egin dute XX. mendean. Erre-



Bergaran egon da errementarien eta ferratzaileen tradizioziorik?

XX. mendearen erdialdera arte lauzpabost errementari egon dira herrian eta auzoetan. Hain zuzen ere, jasotako informazioaren arabera, 1925ean Amillagan, Mugertzan, Zubietan, Osintxun, Angiozarren eta Ubaran zeuden errementariak. Eta urte berean Amillagan, Masterrekan, Arrurriagan lehenik eta gero Barrenkalean, Zubiaurren., Osintxun eta Angiozarren beste horrenbeste ferratzaile zeudela jakin dugu. Argitu behar da sasoi hartan Angiozar eta Ubara Elgetako auzoak zirela.

Nora jo duzu informazio egiteko prozesua?

Lanaren ardatza eta informazio-iturri nagusia lekukoei eginiko elkarrizketak izan dira. Elkarrizketak egiteko gure ama Lide Oregi izan dut lankide. Ofizioan jarraitzen duten errementari eta ferratzaile gutxi batzuek ere prozesuak sakonean ezagutzeko aukera eman didate, baita bibliografian eta hainbat artxibotan jasotako informazioak ere.

Prozesua berez luzea izan da eta bi fasetan eginikoa da. Hasiera baten elkarrizketak transkribatu eta lekukoengandik lanbideetan erabiltzen ziren berbak eta lexikoa jaso genituen. Gero, bat-batean, UNEDeko Euskal Kultura Departamentuaren ezabatze erabaki ulertezinarekin bertan behera geratu zen proiektua. Horren ondoren Udalak hartu zuen bere gain proiektuari beharrezko bultzada ematea, eta horren ondorioz aipatutako lau liburuak osatu eta argitaratu ahal izan dira. **Zela dago antolatuta liburua?**

Alde batetik, bi ofizio horien deskribapena eta ezaugarriak; bestetik, ofizioan jardundakoei elkarrizketak; eta azkenik, Bergara aldean erabiltzen ziren berbak jaso ditugu. Era berean, 200 bat argazki ditu liburuak.

"Informazio-iturri nagusia lekukoei eginiko elkarrizketak izan dira"

mintak fabriketan egiten dira gaur, ekoizpena izugarri handituta; eta nekazaritzan ere makinak ordezkatu dituzte garai bateko lanabesak eta bertan erabiltzen ziren animaliak ere.

Errementariak, beraz, ia guztiz desagertu dira, eta gaur egun segitzen duten gutxi horiek, gehienek, apaingarri eta dekorazio arlorra zuzendu dute lanbidea.

"1925ean hainbat errementari eta ferratzaile zeuden Bergaran eta auzoetan"

Eskuz forjatutako tresnak estimatuak dira neurri baten, eta Euskal Herrian horietako hiruzpalau errementari ezagutzeko aukera izan dugu.

Ferratzaileei dagokienez, gure ibarrean ferratzaile bakar batek dihardu lanean gaur egun, baserri baserri, eta gehienbat behie hanketan sortzen zaizkien gaitzak sendatzen ditu.

LABUR

Novedades zinema irailera arte itxita egongo da

Novedades zinemak aste bukatu honetako filmen ondoren atea itxiko ditu irailera bitartean. Halaxe azaldu du Josean Azkarate Askasuak, Novedades zinemako arduradunak. Azkarate Askasuak zera esan du: "Zinemak gainbehera egin du azken urteotan, eta ekainetik irailera bitartean zinemara jende gutxien joaten den denboraldia izanda, ixtea erabaki dut, dirua galtzen dihardut-eta". Gaur, egubakoitza, hasi eta astelehenera bitarteko emanaldietan ez da inongo aldaketarik egongo. Martitzenetik aurrera egongo da itxita.

Jolasleku ibiltaria gaur, egubakoitza, Fraisko zurin

Jardunek antolatzen duen Jolasleku Ibiltaria Fraiskozuri plazan egongo da gaur, egubakoitza. 17:00etatik 19:00etara egongo da eta 6 eta 12 urte arteko neska-mutikoei dago zuzenduta.

Helburua da euskal kantu eta jolasen bidez euskaraz jolasteko baliabide egokiak eskaintzea umeei, eta, batez ere, ahozotasuna lantzea.

Hurrengo saioak ekainaren 13an eta 20an izango dira; lehena Espoioan eta bigarrena parkean, ordutegi berean.

Francori ohorezko alkate izendapena kentzeko mozioa

Francisco Franco Bahamondei Bergarako ohorezko alkate izendapena kentzeko mozioa aurkeztu zuten Bergarako Sozialista Abertzaleek aurreko egubakoitzeko osoko bilkuran. Udaltzatzak 1939an eman zion izendapen hori Francori, eta egubakoitzean, alderdi guztien oniritziarekin, izendapena kentzea onartu zuten.

BERGARA MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimarak

Urarte 8 BERGARA
943 76 11 99 / 14 47.
Faxa: 943 76 04 77

SANTOS



Etxetresna elektrikoak eta argiztapena

Masterreka 2. BERGARA
Tf. 943 76 26 10



Urteaga 9
BERGARA
Tf. 943 76 18 45

FRONTOI



TABERNA

Fraiskozuri z/g.
BERGARA
943 76 05 09

Dixula

BOKATAK DAUZKAGU

Barrenkalea 32
BERGARA
Tf. 943 76 44 95



BARRAKEN PREZIOA JAITSI NAHI

Gaztetxo horiek barraken prezioa 1,50 eurotik 1,20 eurora jaisteko sinadurak batzen jardun dute, eta 600 bat sinadura zituzten batuta egubakoitzean. Sinadurak alkateari aurkeztu nahi dizkiote. Victoria-nok agintaldi berrian hartzen duen lehen erabakia izango ote? Argazkian, Josu Olabarria, Maitane Arribas, Xabier Baskaran eta Olatz Sanz.



BERGARAKO KOADRILAKOekin BAZKARIA

Madrilen bizi den Luis Urtzelai bergararrari agur-bazkaria eskaini zioten koadrilako lagunek joan den maiatzaren 14an Erreki jatetxean. Madrilen urte askoan lanean jardun ondoren, Luis Urtzelai erretiratu egin da eta Bergaran duen koadrilako lagunekin elkartu zen hori ospatzeko. Luisek Madrilen segituko du bizi izaten. Argazkian, ezkerretik eskumara, Genaro Lekuona, Javier Aranburu, Manolo Cainzos, Jose Ramon Aiastui, Luis Urtzelai, Juan Iturralde eta Felix Garitano.

JARDUNEN OLINPIADAK



MARRAZOAK TALDEAK LEHEN POSTUARI EUSTEN DIO GAZTETXOEN OLINPIADETAN

Jardun elkarteak antolatutako Olinpiaden bigarren jardunaldia jokatu zen zapatuan erretiratu-entuen egoitzan. Hamalau taldeetako partaideek toka, igela eta bolo jaurtiketa izan zituzten eta lehia bizia egon zen puntuak eskuratzeko. Hainbat jokalarik trebetasun handia erakutsi zuten jarduera horietan. Argi dago hainbat talde ondo baino hobeto prestatu direla Olinpiadetarako... Zapatuan jasotako emaitzen arabera horrela geratu da sailkapena: 1.- Marrazoak (16,5 puntu), 2.- Tutukiak (16,5 puntu), 3.- Porki Txerriak (15), 4.- Gorridunak (15), 5.- Chipitren (11 puntu), 6.- Arrano Beltza (10), 7.- Funkiak (10), 8.- Orbea (9), 9.- Alperrak (9), 10.- San Martintxo taldea (7,5 puntu), 11.- Aupa Gu (5), 12.- The Scorpions (3 puntu), 13.- Rap Boyak (1,5 puntu), 14.- Sorbandurriatarrak (puntu bat). Bihar, zapatua, taldeek proba gehiago izango dituzte Seminarioan, 16:00etan hasita. Dominak eskuratzeko lehian, lau taldek aurre hartu diete gainerakoei.

MUSIKA ESKOLAKOAK GETXOKO TOPAKETAN

Musika Eskolako ikasleek Getxon ospatutako Musikaldian hartu zuten parte maiatzaren 17an. Han egon ziren musika eskoletatik Bergarakoak eraman zuen ikasle gehien: 130, hain zuzen. Orkestra Sinfonikoa, Haurren Abesbatza, Gazteen Banda eta Akordeoi Orkestrako ikasleak egon ziren, besteak beste. Bergaratik joandako talde guztiek hainbat emanalditan hartu zuten parte eta maila ona erakutsi zuten guztiek. Hara joandako guraso eta irakasleek ere egun ederra pasatu zuten. Musikari bikainak, herriko enbaxadore ezin hobeak...




EGUZKITZA

ERRETEGIA

Haranerreka 50, behea
943 76 70 45

Eguzkitza erretegiak bere urteurrena zuekin ospatu nahi dau **Pentekoste jaixetan MENU BEREZIA eta TXARRIKUMIA**



Iturgintza Berogintza Aire egokitua Konponketa Salmenta

Arruriaga 11
686 943 918

AKORT

Ipin ezazu zure ARGAZKIA PUZZLE BATEAN

BERRIA!

Izan zaitetz orijinala: ZURE OPARIAK LATA BARRUAN

Era guztietako kamisetak eta kirol-jertseak

Fotokopiak KOLORETAN

Enpresako OPARIAK egiteko, imajina dezakezun guztia: boligrafoak, agendak, aterkiak, ordenagailuendako alfonbratxo pertsonalizatuak...

Mugertza 7, BERGARA. Tel.: 943 76 50 39

MINGAINARITIRAKA



Aitziber Zabaleta

AEROBIK IRAKASLEA

Kazetaritza ikasketak egin zituen Leioako Fakultatean eta joan den urtarrila ezkerro Udaleko Kirol Zerbitzuak antolatzen dituen aerobik ikastaroetako monitorea du. 31 urte dauka, eta 2 urteko seme bat: Ager.

- Aerobik egitearen gauza onena?**
Osasunarendako primerakoa eta aldi berean dibertigarria dela.
- Mutil gutxi animatzen dira aerobik egitera, ala?**
Nesken kirola dela uste dute, eta ez da horrela. Probatzen ausartuko balira, mutil asko eta asko gustura ibiliko lirateke.
- Argal egoteari garrantzi handiegia ematen dio jendeak?**
Beharbada bai. Aerobikera etortzen diren gehienak ere gutxienez kilorik ez irabazteko etortzen dira.
- Zuk ezer berezirik egiten duzu argal egoteko?**
Aerobika, besterik ez.
- Dieta zaintzen duzu? Janari eta edari bana?**
Denetik jaten dut. Amaren alkatxofak; eta edaria, garagardoa.
- Aisialdian zer egitea gustatzen zaizu?**
Tira, 2 urteko ume batekin aisialdi gutxi daukat. Hala ere, paseatzea eta siestatxoa egitea atsegin dut.
- Liburu bat/Film bat/Musika talde bat?**
Cien años de soledad (G^a Márquez)/*Delicatessen*/Skunk Anansie.
- Bizitzan zeri ematen diozu lehentasuna?**
Osasunari eta pozik bizi izateari.
- Besteengan gehien estimatzen duzuna?**
Zintzotasuna.
- Mutilei zeri begiratzen diezu lehenbizi?**
Ea barre eragiten didaten, aspergarriak ez izateari.
- Pinpirina zara? Gustuko jantzi bat? Kolore bat?**
Pixkatxo bat bai. Kamisetak atsegin ditut; eta kolorea, beltza.
- Zenbat ordu egiten duzu lo?**
Zazpi bat.
- Eta zerekin egiten duzu amets?**
Lasai bizi izatearekin eta semea osasuntsu haztearekin.
- Etxeko lan gorrotagarriena?**
Komuna garbitzea.
- Udan nora joango zinateke oporretara?**
Nojara noa, eta gustura...
- Alkateari zer eskatuko zenioke?**
Herritarroi kasu egiteko, herritarron nahia kontuan izateko.

EDU MENDIBIL

NIREBIDAIAHURA/ Iñaki Akizu

ESKOZIA / 1999ko abuztuan

Orain dela lau urteko udan joan ginen Eskoziara lau lagun: anaia Aitor, Lauri Askargorta, Xabier Lazkano eta laurok. Eskozia bizikletaz zeharkatzeko asmoa geneukan, Edinburgon hasi, ekialdeko kostaldetik jarraituta iparralderaino igo eta mendebaldetik Edinburgora itzuliz. Baina gure hasierako asmoa aldatu egin behar izan genuen, uste baino kilometro gehiago zirelako. Beraz, ez ginen iparraldeko itsasoraino heldu.

Egunean, batez beste, 100 kilometro egitea pentsatu genuen, eta guztira hamazazpi egun eman genituen Eskozian. Egia esateko, eguraldiarekin ez genuen zortzerik izan, ia egunero euria izan genuen-eta. Hori xe izan zen pena bakarra.

Eskozia oso herrialde erakargarria da. Itsasoa eta mendia tartekatzeak aukera izan genuen, hango paisaia berdeak eta itsasoak erakusten zituen urdin ezberdinak. Eguraldiak lagundu ez bazigun ere, bizikletan ibiltzeko ez dago zirkulazio handirik, eta alde horretatik, behinik behin, lasai ibili ginen. Goizeko bederatziak aldera irteten ginen. Edinburgotik Invernessera jo genuen. Han dago Ness laku ospetsua, baina ez genuen *Nessie* ikusterik izan... Nahiz eta ia egun guztietan bizikletan ibili, egun bat edo



“Eskozian zehar bizikletan ibiltzeko eguraldiak ez zigun lagundu. Horixe izan zen pena bakarra”

“Lewis eta Skye uharteetara ere iritsi ginen; babestutako naturagune ikusgarria da Skye”

beste atsedean hartzeko aprobe txatu genuen, eta Inverness ondo ezagutzeko aukera izan genuen. Oso hiri lasai da. Handik Ullapool-era jo genuen, gure ibilbidean iparralderako zegoen herria. Eguraldia ikusita, Ullapoolera trenaz joatea pentsatu genuen, baina ez ziguten uzten bizikletak trenean eroatea, eta azkenean bizikletaz joan behar izan genuen. Ullapool arrantzaleen herria da, ikustekoa. Eta gero bi uhartetan egon ginen: Lewis-en eta Skye-n. Skye benetan ederra da; babestutako naturagune ikusgarria. Hala ere, ahal genuen tokian lo egiten genuen, eta eltxoekin majo sufritu genuen. Eskerrak azkenean lo egiteko aterpe bat topatu genuela...

Horren ondoren, mendebaldetik jaitsiz, Fort William-era iritsi ginen, eta gero Oban-etik (bizikletan zebilen Eibarko bikote batekin topo egin genuen han) eta Stirling-etik igaroz, Edinburgora heldu ginen. Edinburgo oso hiri bizia da, are gehiago udako jaialdiko egunetan,

abuztuan. Turista eta ikasle asko jasotzen dituen hiria da, eta hori igarri egiten da kaleko giroan. Kultura eskaintza ikaragarria da jaialdian. Eta Edinburgon ere ez dira falta Eskoziako ohiko gazteluak.

EDU MENDIBIL




Lauri Askargorta, Iñaki Akizu eta Xabi Lazkano, Stonehead inguruko gaztelu bat atzean dutela.

AZPEITXI

Jatetxea

Aranerrekka 13 behea. Bergara
943 76 55 00



JAUJA KIROLAK

Irizar 2. BERGARA
943 76 14 95



Matxiategi Elektragintza S.L.

ELEKTRIZITATE MATERIALEN
SALMENTA ETA INSTALAKUNTZA

Zurradero 8, behea. BERGARA. 943 76 19 94.

Kopa Txapelketako finalerdiak domekan Labegaraietan

E.M.

Kopa Txapelketako finalerdiak jokatu dira domeka arratsaldean Labegaraietako kiroldegian. Alde batetik, Mongatxurak eta Komando Piperrak taldeen arteko partidua izango da, 16:00etan, eta bestetik, Bayer eta Dedo Pafarru taldeen artean erabakiko da beste finalista, 17:00etan.

Mongatxurak taldeak A Ze Flaxari irabazi zion final-laurdenetan, 2-1. Bi talde horiek liga

ko finala jokatuko dute jaien ostean. Komando Piperrak-ekoek, berriz, ustekabean irabazi zioten Artusamak iazko liga txapeldunari, penalti jaurtiketetan.

Beste finalerdiko protagonistei dagokienez, Bayer Pirulotarrak taldeari nagusitu zitzaion eta Dedo Pafarruk penaltietan lortu zuen sailkapena, Bedarretari irabazita.

Kopa Txapelketako finala jaien ostean jokatuko dela adierazi dute antolatzaileek.



ARTXIBOA

Hogeita lau talderen partaidetza izan duen futbito txapelketa azken txanpan dago.



Martizenero finalerdiaren protagonistak sari banaketaren ostean, Udaleko eta antolaketako ordezkariekin.

PILOTA

Urrizelki-Retegi eta Eguzkitza-Erauskin bikoteak, Bergara Hiriko txapeldunak

Txapelketako finalek pilotazale ugari batu zituzten Udal Pilotalekuan martitzenean

EDU MENDIBIL

Urrizelki eta Retegi 22 urtetik azpikoekin mailan eta Eguzkitza-Erauskin nagusietan ditugu Bergara Hiriko txapeldun berriak. Martitzenean Udal Pilotalekura joandakoek ikuskizun bikaina izan zuten.

Aspaldiko partez Udal Pilotalekuko harmailetan sarrera bikaina egon zen martitzenean. 600 bat lagun batu ziren finalak ikusteko. 22 urtetik azpikoekin finalean, Urrizelki eta Retegi 22-12 irabazi zieten Iker Azaguirre bergararrari eta Esnaolari. Julen Retegi bolearen batekin egin zuen azken tantoa. Zaleek erabat gozatu zuten lau pilotarien joko-

arekin. Amaieran, Urrizelki pilotari onenari zegokion trofeo jaso zuen Iker Muruamendi-razen eskutik.

Senior mailako finalean, profesionaletan hastear dagoen Martínez de Irujo aurrelariak nagusitasuna azaldu zuen partidua hasieran eta aho zabalik utzi zituen zaleak behin baino gehiagotan. Baina pixkanaka-pixkanaka Eguzkitzak neurria hartu zion eta Martínez de Irujo indarra galdu zuen. Erauskinetik eta Okiñenak ere lan dezente egin behar izan zuten atzeko koadroetan. Azkenean, Eguzkitza eta Erauskin nagusitu ziren, 22-16. Eguzkitzak maila handiko detailak erakutsi zituen eta hark eraman zuen pilotari onenaren tro-

feo. Jokin Etxanizek eman zion kopa. Finalen ostean, Victoriano Gallastegi alkateak, Kutxako arduradunak eta BKEko ordezkariak egin zuten sari banaketa. Pilota Saileko arduradunak erabat pozik azaldu dira Bergara Hiriko zortzigarren aldiak izan duen erantzunarekin.

DEBARROKO TXAPELKETA

Azurmendi-Larrañaga kadete mailako bikoteak Elgoibarko bikotearen aurka jokatuko du Debarroko Txapelketako finalerdi martitzenean, hilaren 30an. Udal Pilotalekuan, 19:15ean.

Bestalde, Aretxabaletari irabazi ostean, Bergarak Azpeitaren aurka jokatuko du Herritako Txapelketan.

GIMNASIA

Ariznoako gimnastak onenen artean Gipuzkoako Eskola Arteko Txapelketan

Alebin mailako Ariznoa Gimnasia Erritmiko Taldeak lehen postua lortu zuen zapatuan Arrasaten, Gipuzkoako Eskola Arteko Txapelketan: Ainara Amoros, Lide eta Usoa Toledo, Jurdana Pildain eta Ainhoa Martínezek osatzen dute taldea; infantil mailan ere Ariznoakoak nagusitu ziren: Eider Carrasco, Ikerne Rodríguez, Oihane Agirre, Saioa Ugarteburu eta Lorea Albenizen taldea; banaka, Eider Carrascok irabazi zuen; kadete mailakoek ere lehenak izan ziren: Virginia Odriozola, Maialen Legorburu, Izargi Vega, Sarai Ruiz eta Amaia Markiegi; banaka, Maialen Legorburu izan zen lehena, Virginia Odriozolaren aurretik.

KIROLDEGIA

Udako kanpainarako izenematea ekainaren 3tik 24ra egongo da zabalik

Udako kanpainako lehen txandarako izenematea ekainaren 3tik 24ra egongo da zabalik. Kirol Zerbitzuak kirol jarduerak zabala eskainiko du, *spinning*-a tartean. Argibideak 943 77 91 67 telefonoan.

MENDIA

Xabier Lijó eta Igor Labaienek Gorbeia Mendi Lasterketan hartu zuten parte

Xabier Lijó mendizaleak hiru ordu eta 15 minutu behar izan zituen domekan Gorbeia Mendi Lasterketa (33 kilometrokoa) egiteko; Igor Labaienek hiru ordu eta 30 minutu behar izan zituen.

FUTBOLA

Aranzadi Ikastolako futbol taldeak Euskadiko Eskola Arteko Txapelketako finala galdu zuen

Aranzadiko futbol taldeak galdu egin zuen Euskadiko Txapelketako finala zapatuan Eibarren, Berriotarrak taldearen aurka, 5-1. Nerea Madariagak egin zuen Aranzadiren gola. Bergarrek errekurtsoa aurkeztu zuten bizkaitarren taldea selekzioa zelako.

IPINTZAKO FUTBOL TXAPELKETA

PARTIDUAK

ZAPATUA 31 (FUTBOL 11)

09:00: Gore-The Parpol
10:00: La Juve-Txokokuak
11:00: Gorriones-Komando Piperrak
12:00: Mongatxurak-Ska Libur

ASTELEHENA 2 (NESKAK, A MAILA)

18:00: Euskaldunak-Irabazleak*
18:00: Arloteak-Aranzadi

ASTELEHENA 2 (FUTBOL 11)

19:00: Ilari-Torrekua
20:00: Angiola-Drink Team
21:00: Aristoi-A Ze Flaxa Guipuzcoana

MARTITZENA 3 (FUTBOL 11)

19:00: Altos Pornos-Getokuak
20:00: The Parpol-Osintxu
21:00: La Juve-Bildurbarek Opel Lam

EGUAZTENA 4 (FUTBOL 11)

19:00: Txokokuak-Beti K.A.B.
20:00: Mongatxurak-Gore
21:00: Arloteak Lacor-Indar Gorri

EGUENA 5 (BETERANOAK)

20:00: Ezinleike-Mongatxurak
20:00: A Ze Flaxa-Arloteak
21:00: Txipiron-Bildurbarek Opel Lam
21:00: Guipuzcoana-Canalejas

EGUENA 5 (NESKAK, A MAILA)

17:15: Euskaldunak-Aranzadi
18:00: Arloteak-Soraluze B
18:00: Xukak-Irabazleak

EGUBAKOITZA 6 (NESKAK, SENIOR MAILA)


19:00: Antzuola-Baztangak
19:00: Pentol's Team-Potzu ta Zapaburuak
20:00: Awilly Willy-Ou Pitxu Ou!
20:00: Plaust-Ogizun

Eskerrik asko

Bergara Aurrerari laguntza eman diozuen guztioi.

Militanteei.

Egoera zail honetan konfiantza gugan ipini duzuenoi.



1.833 bergararrek aukeratu gaituzte. Hiru zinegotzi herriaren zerbitzurako.



Jesus Mari
Garitano



Mila
Elortza



Mikel
Eguren



Maite
Guridi

PNV-EA, ARALAR:
bergararren borondatia
eta botua errespetatu!



**BERGARA
aurrera!**

HERRIGINTZA
UDALBILTZA
DESOBEDIENTZIA

Toledok Orixe saria jaso du poesian, Huitzin; Barrusok, antzerki arloan, Donostian

Maite Toledok eta Arritxu Barrusok saria jaso dute

MONIKA BELASTEGI

Maite Toledok Huitziko Kontseiluak (Nafarroa) antolatzen duen Orixe saria jaso du, poesiarren alorrean. Arritxu Barrusok, berriz, La Rata India antzerki taldeko kide da, eta taldeak gaztelaniazko lan onenaren saria eskuratu du Donostiako Gazte Antzerki Topaketetan.

Ez da Maite Toledok saria jasozten duen lehenengo aldia. Iaz, esaterako, Amodiozko Gutunen Lehiaketan Bergarako Gutun Onenaren saria eskuratu zuen. Baina poesia ere idazten du Maitek, eta orain dela bi aste Huitziko Kontseiluak antolatzen duen Orixe saria jaso zuen, poesiaren arloan, *Mundiala zara* lanarengatik. Maitek azaldutakoaren arabera, toki ezberdinetan baina bata bestearengana pentsatzen dabiren bikote baten gaineko istorioa da. Epaimahaiaren iritziz, hasieratik amaierara arte kohezioari eusten dio lanak; batasuna du, oso polita da eta erritmo poetiko konstantea dauka, besteak beste. Hona poesiaren pasarte bat: Andreak,/herabe,/ireki du/leihoko atea,/kontuz-kontuz askatzeko/uso zuriaren/ezker hankako/papera./Ez da irudimena./Jakin-minez /desegin du/paper karratuaren tolesdura;/sinadura irakurtzean,/malakoak erori zaizkio musura./Apur bat itxaron du,/joan arte/ninietako lanbroa.




Maite Toledo (ezkerrean) eta Arritxu Barruso.

ARRITXU BARRUSO, ANTZERKIAN

Arritxu Barrusok Donostiako Deustuko Unibertsitateko antzerki taldean dihardu orain dela hiru urtetik, La Rata India izeneko taldean, hain justu. Orain dela bi aste Donostiako Gazte Antzerki Topaketetan saria jaso zuen taldeak: senior mailako gaztelaniazko lan onenaren saria.

El sexo y el amor es cosa de dos lanarengatik eman zieten saria. Zazpi emakumeren bakarriketak jasotzen ditu eta sexuaz eta bikoteen arteko bizimodu hobez jarduten dute. Arritxuk azaldu duenez, bere pertsonaiak Veronica du izena, eta "amak sexuaeren gainean inoiz azalpenik eman ez dion neska bat" dela gehitu du.



Zekorketak iragartzeko kartela aukeratu

Zezen zaleak taldeak Pazkoetan antolatzen dituen zekorketek badute kartel iragarlea. Kartela aukeratzeko Abdon Juaristi lehiaketa antolatzen dute; aurten seigarren aldia izan da eta irabazlea Felix Ayala Urtubi arrasatearra. Ayalaren lanak *Intelectuales* du izena, eta aurkeztutako gainerako lanekin batera kultura etxean dago ikusgai ekainaren 15era arte./M.B.

KULTURAPILULAK

Gerra garaian atzerrira joandako euskal umeen gaineko hitzaldia martitzenean

Udal Agiritegiak antolatutako Euskal Herriko historiaren gaineko hitzaldi sortaren hurrengoa martitzenean, ekainaren 3an, izango da, Miguel Altuna Institutuan, 19:30ean. Jesus Javier Alonso Carballés Historian doktoreak egingo du hitzaldia eta honako gaiak jorratuko ditu: *La generación del exilio. Historia y memoria del exodo infantil vasco, 1936-1939*. Besteak beste, 1937an Europako hainbat herrialdeetara gertatutako exodoaz jardungo du.

Bergara Hiria Argazki Lehiaketako lanak ikusgai kultura etxean eguenetik aurrera

Pol-Pol argazki taldeak antolatutako XIX. Bergara Hiria Argazki Lehiaketako lanak ikusgai egongo dira kultura etxean datorren eguenetik ekainaren 15era bitartean. Berrogei lanek osatuko dituzte erakusketa, eta lehiaketako irabazleak nor diren bihar, zapatua, erabakiko dutela aurreratu dute Pol-Pol taldeko kideek.

Bergarako Orkestra Sinfonikoak emanaldia egingo du bihar, zapatua, Sorluzen

Sorluzeko kiroldegian izango da, 22:00etan. Sarrera aurrez eskuratu nahi duenak Lazkano zapata dendan eta Ariznoa taberna egin dezake. Emanaldiak bi atal izango ditu: batean lau lan egingo dituzte: *Concierto Grosso opus 6, Sinfonía en si menor, La danza macabra* eta *Armenian dances*; bestean, *Eraztunen Jauna*.

Zura Boskotea taldeak emanaldia egingo du Valentzian ekainaren 7an

Carpesa izeneko herrian egingo dute kontzertua. Lagun batzuekin bitartez egingo dute emanaldi hori, eta zortzi obrako egitaraua prestatu dute. Batez ere, euskal folkloreko eta *dazin* doinuak egingo dituzte. Horrez gainera, bihar, zapatua, beste emanaldi bat egingo dute Bilbon, kalean, eguerdian.

Etzi, domeka, 450 dantzari inguru izango dira 30. Haurren Euskal Jaian

MONIKA BELASTEGI

Domekan, ekainaren 1ean, dantzari gaztetxo ugari ikusteko aukera egongo da herriko kaleetan barrena. Goizean herriko kaleetan egingo dute dantza; arratsaldean, berriz, San Martin plazan.

Aranzadi, Mariaren Lagundia eta San Martin ikastetxeetako dantza taldeek, Gazte Alai dantza taldeak eta Xamatx dantza taldeak antolatu dute jaia. Dagoeneko 30 urte egin ditu, eta ohi bezala inguruko herrietako ume ugari etorriko da herrira domekan. Herri haueko taldeak, hain justu ere: Azkoitiko Kandiola taldea, Arrasateko Lore Gazteak eta Txikitxu taldeak, Aretxabaletako Lora-mendi taldea, Oñatiko Oñatz taldea, Urretxuko Lurra taldea, Sorluzeko Urrats taldea eta Gorlizeko Aratz taldea. Kanpotik datozenak 300 ume inguru dira eta



San Martin plazan elkartu eta alardea egingo dute dantzari guztiek 17:30ean.

herrikoak, 150 bat. Horrez gain, 150 arduradunek jardungo dute.

Guztiak 10:30ean elkartuko dira Seminarioko patioan. 11:30ean alkate eta alkatesa txikiengietorria egingo diete San

Martin plazan eta gero, taldeek herriko kaleetan barrena egingo dute dantzan. 13:30ean bazkaltzera joango dira umeak eta 17:30ean, alardea egingo dute San Martin plazan.

ARTXIBOA

E, TXO!

GUREGAIK / MUSIKA

Kontzertu ugari izango ditugu oraingo aste bukaeran Bergarako gaztetxean

AINTZANE IRIZAR

Gaur, egubakoitza, eta bihar, zapatua, lau musika talderen emanaldiak izango ditugu gaztetxean. Eguenean, berriz, Hard-Ons taldeak egingo du kontzertua gaztetxean; Euskal Herrian egingo duen bakarra.

Kontzertuz betetako aste bukera izango da datorren hau. Gaur, egubakoitza, The Briefs estatubatuarren eta The Astrozombies donostiarren musika bertatik bertara entzuteko aukera izango dugu, 22:30ean.

Washingtondik, Seattletik, hain zuzen ere, datozkigu lehenak, eta punk-rock musika ekarriko digute handik. 1999an taldea sortu zutenetik hona lau disko grabatu dituzte eta euren azkeneko diskoa aurkeztuko digute gaur gauean: *Of the charts* izeneko diskoa, hain zuzen ere.

The Astrozombies taldea, berriz, Donostiatik datorkigu; Buenawista Prollekziom elkarreko lokaletan sortu zuten talde hori, 1998an. Hardcore-punk estiloko musika egiten dute donostiar horiek, eta nabari da euren musikan Circle Jerks, Minor Threat, Poison Idea eta horrelako taldeen eragina.

Zapatu gauean, 22:30ean, beste bi talderen kontzertua izango dugu: Rockzilla eta Los Padrinos taldeena, hain justu. Gironatik datozkigu Rockzillako lagunak;



ARTXIBOA

Rockzilla taldekoek egubakoitzean eskainiko dute kontzertua.

punk-rock estiloko musika egingo dute horiek, oso doinu gogorak eta biziak. 90eko hamarkadako rock talde eskandinavia-

rren eta 70eko amerikarren eragina ikus dezakegu euren musikan. Kaleratu duten azkeneko diskoa aurkeztuko digute gazte-

txean: *Evil Way* izeneko diskoa, hain zuzen ere.

Rockzillarekin batera, Los Padrinos arabarrak entzuteko aukera izango dugu. Talde horretan ere nabaria da rock eskandinaviarraren eragina. *Al limite* diskoa aurkeztuko digute.

EGUENEAN BESTE KONZERTU BAT
Hilaren 5ean, berriz, Hard-Ons talde australiarraren kontzertua izango dugu gaztetxean; Euskal Herrian egingo duten bakarra. Punk-rock melodikoa egiten dute.

Gaur, egubakoitza, The briefs eta The Astrozombies taldeen kontzertua izango dugu

Eguenean Hard-Ons taldeak kontzertua egingo du gaztetxean; Euskal Herrian bakarra

J.M.IPARRAGIRRE B.H.I
ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA

Erizain laguntzailea

OSASUN ADARRA, A ETA D EREDUETAN

AURREMATRIKULAZIO EPEA: ekainaren 2tik 11ra

TITULAZIOA:

Erizaintzako laguntzaile-teknikaria.

IRAUPENA:

1.400 ordu (ikasturte eta erdi), lantegietan egiten den prestakuntza barne (400 ordu).

LANBIDE ETORKIZUNAK:

- Ospitaleko erizain laguntzailea.
- Lehen sorospenetarako laguntzailea.
- Kontsulta pribatuetan.
- Zaharren egoitzetan.
- Hortz-kliniketan laguntzailea.
- Gaixoen zaintza.

J.M.IPARRAGIRRE B.H.I

Santa Barbara bidea z/g 20700 Urretxu
Telefonoa: 943 72 14 13 Faxa: 943 72 14 03
Posta elektronikoa: jmiparragirre@edunet.es

Oharra: ikasleen garraiorako dirulaguntza aurreikusten da.



**INFORMAZIOA:****Makina Erremintaren Institutua**

Azkué auzoa 1 - 20870 Elgoibar

Tel.: 943 74 82 65 - 74 4132.

Faxa: 943 74 41 53

Posta elektronikoa: amaia@fmh.es

www.imh.es

Eusko Jaurlaritzako
Lanbide Heziketako Ikastetxe
Publikoen sareko partaidea.

2003-2004 ikasturtea

HEZIKETA ZIKLOAK**GOI MAILA (A eta D ereduak)**

- Proiektu mekanikoen garapena
- Mekanizazio bidezko produkzioa
- Industri ekipoen mantenimendua

ERDI MAILA (A eta D ereduak)

- Mekanizazioa

ATEAK ZABALIK
ekainaren 5ean,
19:00etan



Egun, enpresek langile tekniko
kualifikatuen behar handia daukate

Izena emateko epea: ekainaren 2tik 11ra, biak barne

Heldu da uda!




GANTXEGI

Telesforo Aranzadi, 2. 943 76 00 79

Galtzetinak · Pijamak · Bainujantziak · Barruko arropa · Kamisetak koloretan

BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR

Udaletxeko lehenengo solairuan, osoko bilkura aretoaren ondoan dagoen dokumentua zeren kopia da: 1050ean Bergara lehen aldiz aipatu zenekoa, 1268an erregeak emandako hiribilduarena ala 1764an osoko bilkura aretoan estreinatutako *El borracho burlado*-rena?

GALDEDEBALDE

1.

Zein da "Burdina: errementariak eta perratzaileak" liburuaren egilea?

- A/ Anaje Narbaiza.
- B/ Jaione Isazelaia.
- C/ Iñaki Arana.

2.

Nor izan da aurten Abdon Juaristi pintura lehiaketako irabazlea?

- A/ Juanjo Altuna.
- B/ Jon Balentziaga.
- C/ Felix Ayala.

3.

22 urtetik azpikoetan, zein bikotek irabazi du Bergara Hiria pilota txapelketa?

- A/ Retegi-Urrizalki.
- B/ Azagirre-Esnaola.
- C/ Eguzkitza-Erauskin.



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du. BERRIGARAK asmatzaileon artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

ASUN HEISendako izan da 30 euroko erosketa-txartela.

Zorionak, Asun!

Galderen erantzunak: Bonofotoa: **Masterreka** / Galde debalde: 1-B, 2-B, 3-A.



BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1/ 2/ 3/

Ekarri txartela **MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!**

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Ram esnea
Osoa/erdigaigabetua/gaigabetua. Litroko brika.

0,62 €

103 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



PINTOREBERGARARRAKGAUR

Maria Jesus
Manzidor

EDU MENDIBIL

Debakoa jaiotzez, Maria Jesus Manzidor (1945) orain dela 30 bat urte etorri zen Bergarara bizi izatera. Ordurako zeramika landua zuen bere jaioterrian eta Bergaran Simon Arrieta Zeramika Taldean hasi zen. Buztinarekin era guztietako figurak egiten ditu: "Buztin gainean marrazten banengo bezala gustatzen zait eskulturak egitea. Beharbada perfekzionistegia naiz, eta pieza batekin bi hilabete egon naiteke, eskulturaren begia edo dena delakoa buruan irudikatutako bezala egin arte. Detalle txikienekin asko gozatzen duten horietakoa naiz. Ez badut nahi dudan emaitza lortzen, pieza apurtu egiten dut askotan".

Astean hiru egunez Simon Arrieta taldekoek Zabalotegin duten lokalera joaten da. Era berean, San Martin Ikastetxean 4 eta 5 urte arteko umeei eskultura eskolak ematen dizkie, buztinarekin jolasten ikas dezaten. Gabonetan udaletxean jartzen duten jaiotzarako eskultura taldekoek figura gehiago egiteko asmoa daukatela diosku. Bestiak beste, San Pedroko portikoa buztinez landuko dute, eta Belengo estalpe bihurtu.

"Buztin gainean marrazten banengo bezala gustatzen zait eskulturak egitea"



E.M.

JOXAN
ARRAINDEGIA



Ibargarai 24. Bergara. Tf. 943 76 70 29

GARRAIOAK
ANDUZU
TRANSPORTES

BERGARA
607 349 043



Grua zerbitzua

Zerbitzu publikoa eta era guztietako kargak



Silvestre Muñoz, s.l.
pinturak


Pintura-lanak orokorrean

• Pintura industrialak

• Zoru arinak: sintasolak, moketak...

610 25 99 82
610 25 40 37
943 76 24 11

Amillaga 1, 10 pabilioia.
20570 BERGARA



Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
BERRIGARAREN bidez! Ekar ezazu bere argazkia*
eta emaitza ezusteko ederra! **Doan!**

*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm.
Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu.
Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurra BERRIGARAn agertu ondoren.
Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.



BERGARA
Leire Pineda
Maiatzaren 31n, 2 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Malen Gallastegi
Maiatzaren 31n, 9 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Irati Lazpiur
Ekainaren 2an, 5 urte.
Urte askotarako eta munitate bat!
Gurasoak eta Asier.



ANTZUOLA
Naiara Cuevas
Maiatzaren 31n, 26 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



BERGARA
Antton Esnaola
Maiatzaren 27an, 6 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Mikel Gutiérrez
Maiatzaren 21ean, 5 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta anaia Aitzol.



BERGARA
Ane Zangitu
Ekainaren 1ean, 8 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Aitor Rueda
Maiatzaren 29an, 4 urte.
Urte askotarako!
Senitartekoak.



BERGARA
Alazne Soto
Ekainaren 4an, 3 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Ander Plazaola
Maiatzaren 30ean,
14 urte. Urte askotarako!
Familiakoak.



BERGARA
Ibon Gómez
Ekainaren 2an, 4 urte.
Zorionak! Etxekoak, Josu,
Alatz eta Mariñe.



BERGARA
Mikel Lasa
Maiatzaren 11n, 10 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Ander Lasá
Maiatzaren 28an, 3 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Oihane Irureta
Maiatzaren 28an, 11 urte.
Urte askotarako!
Koadrilakoak eta Olatz.



BERGARA
Garazi Arantzabal
Maiatzaren 26an, 14 urte.
Urte askotarako!
Lagunak; bereziki, Josu.



INMUEBLE ETA FINANTZA
AGENTZIA

Bergara / Arrasate / Elgoibar
Telefono Aranzadi 2 behea
943 76 21 80 / 943 76 06 37

Jose M. Martin

pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industrialak

Errekalde auzoa 5, 1.a
ANTZUOLA
Tf. 943 76 62 02 /
666 517 295

Adi!

Argazkiak emateko lekuak:
Bergara: Berrigara, Irizar jauregia,
Barrenkalea 33
Antzuola: Udal Liburutegia,
astelehenetan 17:00etatik
19:00etara
Elgeta: Erosle-Baltxongua

ZABALA
JATETXEA • OSTATUA



Labegaraieta, Ibarra 14
BERGARA.
Tf. 943 76 20 07 - 76 42 57

1929az geroztik zure zerbitzura

REMENTERIA
Altzariak

Egongelak
Logelak
Aukera guztiak
Enkarguan

Artekalea, 6
BERGARA
943 76 13 29

Kabutzia

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tf. 943 76 56 62

disdira

ile apaindegia
edertze gela

Masterreka 7
BERGARA
943 76 00 55

ALBAITARIAK

- ARATZ KLINIKA (Lazpiur Roman)** Zurradero 6, behe. 943 76 70 67 / 607 48 71 19
ETXEBERRIA Julio (Granjako animaliak) 943 76 43 29 / 609 54 16 13
ETXEBERRIA Julio (Debagoieneko albitari ofiziala) 943 76 43 29 / 609 54 16 13
IRASTORZA BENGOA Sabin (Granjako animaliak) Iribar baserria, ANTZUOLA. 943 76 63 46

ANALISI KLINIKOAK

- LABORRA Isabel** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06

BARNE MEDIKUNTZA

- IRIGOIEN Victor** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06

DENTISTAK

- AGIRRE HORTZ KLINIKA** Ibargarai 9, 1-B. 943 76 00 23
ARAMBURU HORTZ KLINIKA Telesforo Aranzadi 1. 943 76 02 46
ASTIAZARAN SOLOZABAL Iparragirre 1, behe. 943 76 27 95
BERGARA HORTZ KLINIKA Bidekurutzeta 36, behe. 943 76 05 77
GOROSABEL J. Alberto Fraiskozuri 5A, 1-D. 943 76 56 88
CAVIGLIA Silvana S. Arrieta 3, 2-B. 943 76 38 54
IRIARTE Idoia Artekale 1, 1-C. 943 76 01 65
SAINZ Ana Herriko plaza 4, ANTZUOLA. 943 78 71 69
TRIPALDI Enrike Fraiskozuri 1, 2. 943 76 70 76

DIETISTAK

- ALBERDI Mireia** Olaaran etxea, Herriko plaza 3, ANTZUOLA. 943 76 60 45 / 646 443 34 58

ERREHABILITAZIO FISIKOA

- LOPEZ DE MUNAIN Francisco J.** Fraiskozuri 8, 1A. 943 76 71 74

FISIOTERAPEUTAK

- ARZAK Miren** (Jarrera-berreziketa orokorra). Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71
BASTERRETXE, Maria Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71

HOMEOPATA

- GANUZA Susana** Ramon Maria Lili 2. 943 76 59 39

MASAILARIAK

- AZPEITIA Irune** Ibargarai 44, behe. 943 76 73 43
CASANELLAS Jabier Boni Laskurain 5, 2-E. 943 76 03 78
ETXEBERRIA Ana Errekalde 6, behe. ANTZUOLA. 943 76 60 13

MEDIKUNTZA ESTETIKOA

- BENITO Isabel** Bidekurutzeta 46, behe. 943 76 52 62

MEDIKUNTZA OROKORRA

- OXIRONDO KONTSULTATEGIA** Boni Laskurain 2, behe. 943 76 20 50

PODOLOGOAK

- ALTUBE Eburne** Simon Arrieta 2. 943 76 07 84
AZPIAZU Arantzazu Herri Lagunak z/g. 943 76 41 32

PSIKIATRA

- GALLASTEGI Pablo** San Martin Plaza 2, 1-ek. 943 76 26 64

PSIKOLOGOAK

- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA** (Logopedia-foniatria, psikologia, psikomotrizitatea). 943 76 14 80
URKAREGI Pakita (Psikologo klinikoa). 943 76 53 13
ZUBILLAGA ZABALA Marisa (Psikologo klinikoa). 943 76 30 76

YOGA

- SAMADHI YOGA** Masterreka 13, behe. 943 76 11 38 / 639 235 753

BERGARAKO
OSASUN GIDA
OSASUNEZ BIZI IZATEKO.

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2003ko maiatzaren 30a / 159. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

Botoen ia erdiak lortu ditu EAJ-EAk, eta Jose Angel Zabalo izango da alkate berria

AINTZANE IRIZAR

Alkate berria izango dugu datozen lau urteotan: Jose Angel Zabalo, hain zuzen ere. Horixe da domekako hauteskundeek eman diguten berri nabarmenena. Zortzi zinegotzi lortu ditu EAJ-EA koalizioak eta PSE-EEK, berriz, zinegotzi bat lortu du.

Hauteskunde kanpaina bezalaxe, hauteskunde eguna bera ere ezohikoa izan zen. Udalbatza zelan geratuko den ikusi besterik ez dago emaitzen ondorioak ere ezohikoak direla ikusteko. Udalbatzak izango dituen bederatzizinegotzietatik zortzi lortu ditu EAJ-EA koalizioak eta zinegotzi bat PSE-EEK.

Alkate berria izango dugu, beraz, datozen lau urteotan; Jose Angel Zabalo esperientzia luzea

du udalbatzan, behin baino gehiagotan izan da eta zinegotzi. Gainerako zinegotzi guztiak, ordea, berriak dira; hau da, aurreko agintaldian, behintzat, ez ziren zinegotzi izan. PSE-EEKo zinegotzia ere berria dugu: Elvira Kortajarena, hain zuzen ere.

UDALA ETA BATZAR NAGUSIAK

Udalerako eta Batzar Nagusieterako hauteskundeetako boto kopuruak alderatzen baditugu, aldaketa handi samarrak daudela ikusten dugu: bai EAJ-EAk eta bai AuBk botoak galdu dituzte. Eta kontuak ateratzen baditugu, badirudi bi alderdi horiek galdutako boto guztiak Aralar alderdi berriak lortu dituela: 114 boto, guztira.

Gertu Gae plataformari parte hartzen laga izan baliote, bestalde, hiru zinegotzi lortuko zituzkeen.



EAJ-EA
JOSE ANGEL ZABALO



EAJ-EA
Dina Muxika



EAJ-EA
Iñigo Ramirez de Okariz



EAJ-EA
Jose Inazio Beltran



EAJ-EA
Basilio Ormazabal



EAJ-EA
Gurutz Madariaga



EAJ-EA
Imanol Garmendia



EAJ-EA
Idefonso Garcia



PSE-EE
Elvira Kortajarena

ZINEGOTZIAK

EAJ-EA	8
PSE-EE	1
GUZTIRA	9

ZINEGOTZI KOPURUA, BALIOGABEAK ONARTU BALIRA

	2003	1999
EAJ-EA	5	4
GERTU GAE	3	4
PSE-EE	1	1
PP	0	0

BOTOEN BANAKETA

	Udala	Batzar Nagusiak
EAJ-EA	615	574
GERTU GAE / AuB*	427	354
PSE-EE	142	133
PP	39	49
ARALAR	—	114
IU-EB	—	44

*Ofizialki, boto baliogabeak

SUKALDEKO ALTZARIAK
Harizki

MUEBLES
IGEA

Sukalderako eta bainurako altzariak
Altzari rustikoetan
espezializatuak

Zurrategi plaza 4, behea. ANTZUOLA. Tel. eta faxa 943 78 71 80

LABUR

Oskorrik 'The pub ibiltaria' ikuskizuna eskainiko du domeka arratsaldean

Udal Pilotalekuan egingo dute kontzertua etzi, domeka, 19:00etan. *The pub ibiltaria* ikuskizunarekin datorkigu Oskorri. Zazpi urte daramatza esperientzia horrekin, eta zazpigarren diskoa kalera-tu berri du. Oskorriko kideekin batera, ikuskizunera joaten diren ikusle guztiak dira emanaldietako protagonista; horixe da, hain zuzen ere, ikuskizun horren oinarria eta horreketan saiatuko dira domekan ere; jendea kantuan jartzen, alegia. Beste era bateko arratsalde pasa egiteko aukera polita dugu, beraz, domekan.



IGELTSEROTZA

Jose Luis Zabalo

Kalegoi 9, 1. solairua
ANTZUOLA.
Tel. 943 76 60 89
Faxa: 943 76 60 14

ZAHAR BERRITZEAK:

Fatxadak
Bainugela eta sukaldea
Lokal komertzialak
Teilatuak

Eta orain....
**GREMIOEN
KOORDINAZIOA**

LEKY-BERRI MERENDEROA

Janariak
eta
edariak

Tf. 943 76 60 94
ANTZUOLA

MUJIKA HARATEGIA



Berezitasunak:
Etxean hazitako
zekorrek eta oilaskoak

Kalebarren, 1.
ANTZUOLA
Tf. 943 76 64 34

AITZ-GARBI



Pintxoak eta
kazuelatxoak.
Bazkariak eta afariak

Kalebarren 15. Tf. 943 78 70 51
ANTZUOLA

LABUR

Aritz Berraondok lehen mailara igotzeko aukera dauka Xabier Imazi irabaziz gero

Aurreko domekan Kepa Peñagarikanoren aurka 22-9 galduta, bigarren mailako txapeldunorde dugu Aritz Berraondo. Ez zuen lehen mailara igotzerik lortu, baina oraindik beste aukera bat dauka: Xabier Imazi irabazten badio, lehen mailara igoko da Aritz. Imazek 22-18 irabazi zion astelehenean Unai Apeztegiari; azken hau bigarren mailara jaitsiko da; Imazek, berriz, lehen mailari eusteko Berraondoren aurkako partidua irabazi beharko du. Segurue- na astelehenean jokatuko dute partidu hori, Tolosan.

Haurren Euskal Jaia ospatuko dute ibarreko ume dantzariak ekainaren 15ean

Oñatiko, Bergarako, Arrasateko, Soraluzeko eta Antzuolako ume dantzariak Haurren Euskal Jaia ospatuko dute ekainaren 15ean Antzuolan. Egun osoan barrena hainbat ekitaldi egongo dira, Oinarin dantza taldeak antolatuta. 150 umetik gora etorriko dira egun horretan Antzuolara, eta bazkaltzeko ume horiek etxean hartzeko gertu dagoen jendea behar dute antolatzaileek. Interesa dutenek Eroskin, Martin okindegian, Ainhoa drogerian edo Itzar liburu dendan eman behar dute izena, ekainaren 12a baino lehen.

Txistorra dastatzea antolatu zutenek eskerrak eman nahi dizkiete herritarrei

Ekainean joango dira Kongora Andres eta Bittor Arbulu, hoditeria sistema jartzen amaitzera. Maiatzaren 17an txistorra dastatzea antolatu zuten Anelkarrek eta Arbulu anaien lagunek, diru batzeko, han eskolak eraikitzeke. 1.400 euro batu zituzten, eta esker- rnak eman nahi dizkiete herritar guztiei, eta bereziki Juan Jose, Muxika eta Gabilondo harategiei, Martin, Altzarte eta Antiguako Errota okindegiei, Udalarari eta Arrola elkarteari, baita dirua eman duten enpresei ere. Bestalde, gogorarazi digute ekimen horri laguntza eman nahi dionak Euskadiko Kutxako kontu korrante honetan sar dezakeela dirua: 3035004013040014425.



Gimnastak Gipuzkoako txapeldun, maila guztietan

Aurreko zapatuan jokatu zituzten gimnasia erritmikoko Gipuzkoako Eskola Arteko finalak Arrasaten. Fin jardun zuten Antzuolako neskek eta maila guztietan irabazi zuten txapelketa. Lide eta Usoa Toledo eta Jurdana Pildain antzuolarrek Ainara Amorós eta Ainhoa Martínez bergararrenkin osatzen dute alebin mailako taldea, eta taldekako txapelketa irabazi zuten. Ikerne Rodríguezek, berriz, Ariznoa taldeko infantilen taldearekin jarduten du, eta haiek ere lehenengo sailkatu ziren. Kadete mailan, azkenik, Maialen Legorburuk hartu zuen parte; taldeka zein banaka parte hartu eta bietan irabazi zuen. Maiatzaren 10ean, berriz, gazte mailako txapelketa jokatu zuten eta Uxue Arregik irabazi zuen; Maialen Toledo bigarren geratu zen eta Iraitz Gastiain laugarren./A.I.

HERRITARREN HITZA / Jone Lete · Ikaslea

Euskal kultura eta 'Egunkaria' aurrera!

Gure herri honen ibilbide luzean zehar hainbat traba eta oztopo jasan behar izan dugu. Oraindik ere pairatzen gabilta traba horiek eta une hauetan inoiz baino gogorrago. Egoera honen aurrean ezin gara isilik geratu. Otsailaren 20an euskaldunok eta euskaltzaleok izututa gelditzeko moduko berria iritsi zitzaigun etxeetara. Herri honek zuen egunkari euskaldun bakarra itxi egin ziguten. Hau gutxi balitz, euskararen alde lan gogorra egin duten hainbat pertsona espetxeratu eta jipoitu zituzten. Baina ez

gaitezen izanitsuak, ez dezagun pentsa jipoitu dituzten bakarrak direnik. Urtero hainbat eta hainbat euskaldun jipoitzen dituzte.

Une hartan, berotasunean, eta inpotentzia zela eta, jende mordoak bildu ginen itxiera salatzeke. Donostian egin zen manifestaldia izugarria izan zen; baina, orain zer?

Hasieran jende ugari elkartu ginen eta babesa eman



"Geure herriaren arazoa konpondu dezagun geuk"

genion, baina sarritan gertatzen den moduan, denborarekin, ahaztu egiten ditugu gauza asko.

Egunkari berria egin beharra dago, eta, ahal bada, hobe. Horretarako denon babesa behar dute. Badakigu, Euskal Herriaren kontrako eraso honetan, euskarren aldeko edonor gaudela estatu espainiarraren begiradapean, baina ez gaituzte isildu-

ko. Horretarako egokiena gure artean elkartzea izango litzateke, Euskal Herria eta euskal kultura abiapuntutzat hartuta. Ez gaitezen espainiarren tranpan erori, hori ez. Etxeko kontuak etxean konpontzen dira ondoen, beraz, konpondu gaitezen gure artean eta geure herriaren arazoa konpondu dezagun geuk. Geuk bizi behar dugu hemen, eta une baten hainbat euskaltzale biltzeko gai izan baginen, orain ere elkartu eta eraiki dezagun gure nortasuna, kultura eta benetako izaera batzen eta onartzen dituen Euskal Herri bat.

KIROLA

PARTIDUAK

FUTBOLA

Maiatzak 31

17:00: Antzuola-Behobia (Gazteak)

OHARRA

Talde erregionala Kopa Txapelketatik kanpo geratu da, Lazkaoen erreklamazioa onartu dutelako.

EMAITZAK

FUTBOLA

Segura 5 Antzuola 1 (Gazteak)

EGANA
Era guztietako arotz lanak
Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatua eta barnizatuak
Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

ANTZUOLA
Apainketak eta
isolamenduak
Pladurrezko dibisioak
Kalegoi 21 ANTZUOLA
676 997 400
Biltegia: 943 78 70 40

GAILUR
taberna eta
gozotegia
Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tf. 943 78 70 32

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2003ko maiatzaren 30a / 143. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Irati Agirreazaldegia • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95

EAJ-EA irabazle Aralarri bost botoko aldea aterata


IRATI AGIRREAZALDEGI

Lehia estua egon da hauteskundeetan Elgetan. Boto zenbaketan Aralar aurretik joan zen, baina azken unean EAJ-EA koalizioak aurre hartu, eta bost botoko aldea aterazioan. Patxi Basauri zerrendaburu duen alderdiak lau zinegotzi izango ditu eta Aralarrek, hiru.

Patxi Basaurik, 27 urtez alkate karguan jardun ostean, beste lau urterako berritu du Udaleko postua. Domekako hauteskundeetan Aralarrek sekulako lehia izan zuen EAJ-EA koalizioak, eta bost botoko aldearekin Oxel Erostarbe zerrendaburu zuen alderdiaren aurretik geratu zen. Horrela, udalbatza osatzeko orduan lau zinegotzi izango ditu EAJ-EAK eta hiru ordezkari Aralarrek. Elgeta Auzolanean plataformaren botoak baliogabetu ez balituzte, hark zinegotzi bat izango zukeen Elgetako Udalean eta beste bi alderdiek hiruna.

Normaltasuna izan zen nagusi domekako hauteskundeetan. 843 elgetarrek zeukaten botoa emateko aukera eta horietatik 666 joan ziren gutun-azalak hauteskontzietan sartzerara. Abstenzioa, hortaz, %18koa izan zen, aurreko udal hauteskundeetan baino %6 gutxiago.

EAJ-EAK behera egin du boto kopuruari dagokionez, aurreko hauteskundeekin konparatuz gero. Izan ere, 271 boto lortu ditu aurten eta 1999an, berriz, 318.



EAJ-EA
PATXI BASAURI



EAJ-EA
Iñaki Ugarteburu



EAJ-EA
Joseba Muxika



EAJ-EA
Izaskun Larrea



ARALAR
Oxel Erostarbe



ARALAR
Iban Retolaza



ARALAR
Rebeka Ubera

ZINEGOTZIAK

EAJ-EA	4
Aralar	3
GUZTIRA	7

Elgeta Auzolanean plataformaren botoek balioa izan balute, zinegotzi bat izango luke.

BOTOEN BANAKETA

	Udala	Batzar Nagusia
EAJ-EA	271	344
ARALAR	266	158
AUZOLANIAN/AuB*	125	123
PP	11	21
IU-EB	—	20
PSE-EE	11	16

*Ofizialki, boto baliogabeak

Aralar izan zen bigarren indarra, lehen aldiz aurkeztu eta 266 boto eskuratuta.

Batzar Nagusietarako botoa eman zuten elgetarrak gehiago izan ziren: 688, hain zuzen ere. Kasu horretan ere EAJ-EA izan zen nagusi 344 botorekin eta Aralar bigarren, 158 boto jasota. Bien arteko aldea handiagoa izan zen.

ESKERRAK

Gauzak horrela, Elgetako EAJ-EA koalizioak eskerrak eman nahi dizkie elgetarrei, parte-hartze handiarengatik eta EAJ-EA koa-

lizioari emandako babesarengatik. Bide batez, adierazi dute Elgetaren alde lan egiteko gertu dauden guztiekin jardungo dutela Udalean.

Aralar alderdikoak ere benetan pozik daude lortutako emaitzekin, eta herritarrek emandako babesa eskertu dute: "Herriak Udala herrira zabaltzearen alde egin du eta daraman gestio moduagatik atentzioa eman dio Patxi Basauriri. EAJ-EAK Aralar eta Auzolanean-ekin batera gobernatzeko kapaz dela erakutsi behar du", esan dute Aralarkideek.

LABUR

Asentzio Egunaren eguna aldatu dute: domeka honetan izango da erromeria

Azkenean, domeka honetan, ekainaren 1ean, ospatuko dute elgetarrek Asentzio Eguna. Eguna mendi ibilaldiarekin hasiko da, eta gero salda eta txorizoa banatuko dituzte. Karramarro Lehiaketa egongo da gero eta meza eta dantza jarraian. Bazkalostean, Bolo Txapelketa, ziklokrosa eta herri jokoak egongo dira. Bihar, berriz, kontzertua antolatu du gaztetxeak.

Edadetuek eta ezinduek kirol jaietan parte hartzeko dei egin du Kirol Zerbitzuak

Datorren ekainaren 7an ezindu fisiko eta psikikoendako egitarau berezia prestatu dute Debagoieneko Kirol Zerbitzuak. Zaletasuna bultzatzeko Oñatiko Zubikoa kiroldegian elkartu eta hainbat kirol ekintza izango dituzte. Bertaratutako guztiek opari bana jasoko dute. Bestalde, ekainaren 13an Bergarako Labegarietako kiroldegian edadetuek izango dute kirolerako aukera. Elgetarrei lehenbailehen izena emateko dei egiten diete.

San Roke kalean ezinduendako igobide bi egokitu eta barandak jarri dizkiete

Ezinduei herriko kaleetan ibiltzea errazteko hainbat proiektu jarri zituen abian Udalak. Orain dela gutxi San Roke kalean igobide bi egokitu ditu, baita horietan barandak jarri ere. Aurrerantzean beste hainbat obra egingo dituzte, oztopo arkitektonikoak kentzeko. San Roke kalean, esate baterako, baranda ipiniko dute.



Lehen Jaunartzea zortzi elgetarrek

Maiatzaren 25a garrantzitsua izan zen Elgetako hainbat umerendako. Ez hauteskunde eguna zelako, lehen jaunartzea zutelako baizik. Argazkiko zortzi neska-mutilek lehen aldiz hartu zuten jauna elizan: Mirian Ormaetxeak, Asier Errartek, Marel Oiangurennek, Aitor eta Irati Sarasuak, Uzuri Untzetabarrerenek, Lide Ugarteburuk eta Maider Zangronizek./O.E.



RECYDE, S.A.

Pagotza pol. ind. 20690 ELGETA, Gipuzkoa
Tel. zentrala: 943 78 80 00. Faxa: 943 78 90 10
Posta elektronikoa: recyde@recyde.es

AENOR



Enpresa Erregistratua

ER-0182/2/95

ISO 9002
QS 9000
ISO/TS 16949

Aperribay, s.l.

Marmoldegi
eta granitoak

Pagotza indus. z/g.
Tel. eta faxa: 943 78 90 21

20690 ELGETA

IRAKURLIAREN TXOKUA

IPIUINETAN DABILENA HERRIA GOBERNATZEKO GAIP

Hauteskunde igandean Iban Retolaza zinegotzi izango dela jakin genuen. Zorionak lankide berriari ezer baino lehen. Aurreko astean Ibanek hainbeste ipuin kontatu ondoren EAJ-EAko zinegotziok pozten gara hurrengo urteetan Udalean zer egiteko gai izango den ikusteko aukera izateagatik. Hala ere, Ibanek aipatu zituen gauza batzuk demagogia merkea baino asmakizun hutsak direnez, hona hemen egin beharreko azalpen batzuk:

1) Gobernu Batzordea: batzorde hau gobernatzeko eraturta dago eta aurrekontuak onartu barik oposizio joko egin nahi duenak beti izango ditu lan batzordeak eta plenoa horretarako.

2) Transparentzia: argi dago Ibanek Elgetako Udalarari buruzko gai asko ez dituela ezagutzen baina, galdetu al dio Udaleko norbaiti horrenbeste arduratzen duten gaiei buruz? Irakurtzen al du egunkari, astekari, Udaleko web orri edo oharrik? Ez da ba izango transparentzia falta baino Iban gertatu zaiona interes falta izatea?

3) Arau Subsidiarioak: Elgetan jarraitutako bidea ez bada partehartzailea eta irekia izan, nahiko genuke jakin Iban zer egiteko gai izango den arlo honetan egindakoa hobetzeko. Herri informazio epe zabalak, komunikabideetan oharak, herriko horma eta paneletan zehaztasunak, alegazioak jaso eta aztertu... eta azkenean erabakiak sasoiz hartu herri arduradun honek egiten duten moduan.

Iban, interes handiarekin jarraituko dugu zure jarduna Udalean eta nahi duzun epean gure balorazioa adieraziko diegu elgetarrei. Zenbat denbora beharko duzu kontatzen dituzun ipuin horiek egi bihurtzeko? 100 egun? Urtebete? Legealdi osoa beharbada?

EAJ-EAko ZINEGOTZIAK

KAPAZIDADIA ADIERAZTEKO AUKERIA DAUKAZUE

Hasteko, zorionak eta zorte on hurrengo lau urtietan!

Aurrekuan esan neban: "onenak lortu daixela botu gehixen eta kapaz izan deilla beste bi alderdixekin gobernatzeko". Zubiaurre jaunak esaldixa hartu bai, baiña ez da izan kapaz erantzuteko. Zubiaurre, izango zara kapaz bi alderdixekin gobernatzeko? Edo zuen nausixak, Patxi Basauri jaunak GOITBn esandakua beteko dozue? "Auzolaniani lana egitten lagako dotsagu, baiña oposiziñua egitten ez". Ja!

Nere botua espero dabela be esan zeban Zubiaurrek. Botua onenari emon dotsatela ez daukat dudarik ze Ibarretxek esango leuken moduan boto uholdia egon da nere botuakin batera. Konturatu zarete horrena?

Batzuk duintasunez jokatu dabe hauteskundietan. Ez dabe harro-harro jardun 5 eta 2 zinegotziko errepartua egongo zala esaten, eta umil-umil indarrak parekatuta zeguazela esan dabe. Ikusi da zein ez dan fanfarroikerixatan ibilli. Eta erakutsi da fanfarroikerixatan ibiltziak eragitten dabela belarrixak bajatzia eta boto kontaketan koloria galduta egotia.

Objektiboki begiratuta, irabazle haundi bat dago: Zero boto izatetik 266 boto izatera pasau da Elgetako Aralar (zelako sustua e?).

Beste bi alderdixak behera eta behera: PNVk % 12 behera; Auzolanianek, EHrekin konparauta boto erdixak galdu ditu. Herrixak esan dau noruntz egin bihar dan eta prozesu honek emongo ditu fruituak. Egon seguru.

Balantzia PNV-ko zinegotzi-gai batek egin zeban emaitzak jakin eta gero. Nik bat egitten dot berakin: "pozik goiazak, baiña harrokerixa haundi barik". Erakutsiko ete dotse honek hauteskundiok hiru taldiei umil izaten...

IBAN ARANTZABAL

IKUS-ENTZUNEZKOAK


Josune Bereziartu eskalatzailleak diapositiba emanaldia egingo du

I.A.

Josune Bereziartu Ordiziako eskalatzaille ezagunak diapositiba emanaldia egingo du datorren ekainaren 5ean, eguenean, Elgetako liburutegian, arratsaldeko zazpi eta erdietan.

Eskaladak eta paisaiak Estatu Batuetako kostaldean izenburupean, AEBetara egin dituen bost bidaien laburpena egingo du Bereziartuk ikus-entzunezko baten bidez. Bere eskaladaguneen gainbegiratu eskaintzeaz gain, hango paisaiak ere erakutsiko ditu diapositibetan. Emanaldi horretan AEBetako mendebaleko parke nazionalak (Yosemite, Joshua Tree, Death Valley, Arches National Park, Canyonlands...) egongo dira ikusgai. Betiere, eskalada begiz erakutsia, hango paretetan gora ateratako irudiak sartu ditu-eta ikus-entzunezko emanaldian.

Bereziartu 17 urte zituela hasi zen eskalatzen, eta, bost aldiz jarraian Espainiako Kopako txapeldun izateaz gainera, boulder



Josune Bereziartu kirol eskaladan munduko onenetakoa dela diote adituek.

rrean Munduko Kopa irabazitakoa ere bada.

Bestalde, kirol eskaladan munduko onenetakoa dela diote adituek. Izan ere, aurrez inork lortu ez duen balentria egin zuen iaz: 9-A zailtasuna duen horma eskalatu zuen Suitzan. Aurretik 8-C mailako zortzi bide, 8-C+ maila-

ko hiru eta 8-C+/9-A zailtasuneko beste bat eskalatutakoa da.

Eskalada gustuko dutenek edo AEBetako paisaiez gozatu nahi dutenek horretarako aukera ezin hobea dute. Gainera, ikus-entzunezkoaren ostean, eskalatzaillearekin berba ahal izango dute bertaratutakoek.


KIROLAK

Elgetarrak Lau t'erdiko finalerdian

I.A.

David Peñalver eta Angel M. Ibarluzea elgetarrek Debarroko Lau t'erdiko Pilota Txapelketako finalerdietako bat jokatu dute. Lehen fasea aurreneko postuan amaitu zuten elgetarrek, eta orain Isturitz-Irasuegi bikotearen aurka neurtu beharko ditu indarrak finalerako txartela lortzeko. Partidua 12:00etan izango da. Aurretik, 11:00etan, Iker eta Arkaitz Egiak Oruesagastiren eta Larrañagaren kontra jokatu dute.

Bestalde, areto futboleko elgetarren arteko derbia egongo da oraingo aste bukaeran. Txapela eta La Kokotxa taldeek jardungo dute elkarren aurka.



David Peñalverrek Angel Mari Ibarluzearekin jokatu du finalerdietako partidua.


DEPILAZIOA LASER BIDEZ

Erizaina: Sonia Simón
OLT: Iratxe Aiarzarena
Medikua: Gabriel Hernández

SAIOA ARANZABAL MASAJEAK ELGETAN, DOMINGO ITURBE 10ean

Kiromasajea • Reflexologia • Hidromasajea • Kirol masajea • Solariuma • Drenaje linfatikoa • Algekin eginiko estalkia

Dei ezazu 646 50 00 29 telefonora ordua eskatzeko



Jesus Mari Montiel ITURGINTZA ETA BEROGAILUAK

Artakale 3

Mo: 656783299 Eibar

Tel: 943 70 07 19

KONPONKETAK
SUKALDE
ETA BAINUGELETAN



ELGETA AUTOAK

Berraondokoa z/g ELGETA
T. 943 76 82 02 F. 943 76 82 98

ERRETRATU ZAHARRA


BERGARA

Miguel Altuna
meza esaten
San Martzialen

Laster 24 urte beteko dira alboko argazkia egin zenetik, 1979ko ekainaren 10ean ateratakoa da-eta. Hain zuzen ere, Umore Ona elkartekoek egindako irteerako argazkia duzue. Umore Ona elkartekoek ekaineko bigarren domekan San Martzialera irteera egiten zuten lehen.

San Martzialgo ermitan meza entzun eta lagunartean giro ederrean pasatzen zuten eguna. Argazkian Miguel Altuna abadea eta Ramon Azpeitia Umore Ona elkarteko kidea agertzen dira. Amezketarra jaiotzez, 1944an etorri zen Miguel Altuna Bergarara, eta Lanbide Heziketa Institutuko bultzatzaile nagusietako bat izan zen. Hain zuzen ere, egin zuen lana eskertzeko, ikastetxeak haren izena darama 1993a ezkerro. Bergaratik alde egin ostean, 1979tik 1993ra Donostiako Artzain Onaren katedraleko parroko izan zen. 1995eko apirilaren lehen hil zen, 78 urte zituela.

Argazkia: Ramon Azpeitia.



ADI, IRAKURLE!


Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatorz BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituztu!

NOLA ALDATUDIRENGAUZAK

BERGARA


Labegaraieta
Surratik

Eskumako bi argazkiak Surratik ateratakoak dira eta hamar bat urteko tartea dago bi irudien artean. Labegaraieta auzoak aldaketa handia izan du azken urteotan. Ezkerraldean, lehen planoan, Mayc-eko lantegia agertzen da eta atzerago, Labegaraietako tximiniak. Industrialdea egiten hasi zireneko argazkia da. Sasoi hartan ekialdeko saihsbidea egiteke zegoen.



≈ 1993

Ekialdeko saihsbidea egin aurretiko argazkia, orain dela hamar bat urtekoa. Industrialdea egiten hasi ziren orduan.



2003

Martxoan ateratako argazkia. Labegaraieta auzoak lantegi asko jaso ditu Labe Garaiak zentzen lekuan. Saihsbidea iaz zabaldu zuten.


Zumelaga
JATETXEA


60 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5. BERGARA. 943 76 20 21

**Plater
konbinatuak
Oilasko erreak
eramateko**



Biko

 BOKATEGIA
Simon Arrieta plaza 2A behe ezkerre.
Tf. 943 76 71 19


IRURAK MARGOAK
DISEINUAK, S.L.

Era guztietako lanak	Paper pintatuak
Moketa eta sintasola	Harea zorrotada
Iztuku esponjatua	Iztuku faltsua

 Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara
Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
Faxa: 943 76 09 32



Aukera onenak. Orrazkera apainenak.

ADATS

- Herri lagunak 4
BERGARA
943 76 49 51
- Europako azken tendentziak
 - Zerbitzu berezi eta pertsonalizatua
 - Solarium bertikala



- Boni Laskurain 2
BERGARA
943 76 56 05
- Txapelketetako Gipuzkoa taldekoak
 - Kerastase tratamend.
 - Makillaje bereziak
 - Abangoardia lanak

disdira

- Masterreka 7
BERGARA
943 76 00 55
- Luzatzeak
 - Azken joerak
 - Ezkontzak
 - Metxak eta moldeatuak

IDOLA

- Espoloia 4
BERGARA
943 76 97 75
- Ile luzatzeak
 - Aurpegiko larruazal garbitzea
 - Solariuma

ileak

- Ozaeta 3
BERGARA
943 76 22 54
- Ilerako tratamenduak
 - Teknika berriak
 - Era guztietako orraskerak

IZARRA

- San Pedro 23
BERGARA
943 76 29 72
- Luzatzeak, ile-kordak, rastak
 - Ilerako bitxiak
 - Solariuma dutxarekin

Jean Louis David


- Ibargarai 43
BERGARA
943 76 22 48
- Teknika aurreratuenak
 - Deskontu txartelak
 - Solariumerako bonoa
 - Estilistaren aholkuak, konpromiso barik

KIZKUR

- Bolu 51
BERGARA
943 76 50 32
- Ile apaindegia eta estetika areto integrala
 - Azken joerak
 - Puntako markak

ORRASKI

- San Pedro 6
BERGARA
943 76 47 01
- Ile apaindegi mistoa
 - Kolore bereziak
 - Ezkontzak
 - Solariuma



- Ibargarai 42
BERGARA
943 76 72 76
- Ile mozte eta kolore pertsonalizatuak
 - Depilazioa eta makillajea
 - Solariuma dutxarekin



- Zurradero 2
BERGARA
943 76 43 07
- Gizonezkoendako
 - Labanaz moztea
 - Azken tendentziak
 - Bizartegia
 - Kolorea

SANCHEZ

- Fraiskozuri 4
BERGARA
943 76 23 70
- Gizonezkoendako
 - Labanaz moztea
 - Klasikoa/modernoak
 - Bizartegia
 - Kolorea

Opel Corsa Edition

ekipamendu eta prezio eksklusiboak



Opel. Ideia berriak. Auto hobeak.



Maiatzean zure Corsa Edition
aire girotuarekin, CD-irratiarekin eta
aleaziozko hagunekin, bakarrik

10.000€*

*Corsa Edition: 3 ate / 1.2 / 16 v / 75 ZP. Fabrikatzaileak gomendatutako prezioa Penintsulan eta Balear Uharteetan ekainaren 30era arte. Hain guztia barne: BEZa, matxulazio zerga, garratza, promozioa deskontua, Prever Plana gasolinazko autoentzako. Corsa gama: kontsumo mistoa (l/100 Km) 4,7tik 7,7ra. CO2 isurpena (g/Km) 118tik 185era.

Gainera, zure **Corsa Edition**-ek ondorengo ekipamendua eskaintzen dizu: • lainotako faroak • larruzko bolantea • aurreko aire-zaku bikoitza • aurreko kristal-igogailu elektrikoak • ateen itxitura zentralizatua urrutiko managailuarekin • barruko akaberak kromo-matean • direkzio lagundu elektrikoa • gidariaren eserlekuaren altuera erregulagarria • alboko faldoiak • kanpoko atzerako ispiluak aluminiozko look-arekin • ihes-hodi deportibo kromatua. **Zatoz zure Opel kontzesionariora**

Giauto Bergara

Kontzesionario ofiziala:

Olabarrena auzoa z/g. Tel. 943 76 33 44/45/46/47. BERGARA

www.giauto.es